

1920ko hamarkadan, Manuel de Ynchausti euskaldun filipinarrak, kultura tradizionalari buruzko hainbat dokumental labor grabatu zituen euskal lurralde ezberdinetan: Eusko ikusgayak. 80ko hamarkadatik Euskadiko Filmategian gordetzen dira filmok, baina oso gutxi ikertu da gaiaz, eta haien historia arras ezezaguna da euskaldungoarentzat. Aldiz, inportantzia historiko eta kulturala nabarmena dute; euskal zinematografiako perla zaharrenetakoak izateaz gain, Euskal Herria irudikatzeko tradizio filmiko baten aitzindari ere izan baitzen Ynchausti.

Giltza-Hitzak: Euskal zinema. Manuel Ynchausti. Eusko Ikusgayak. Etnografia. Iruditeria. Nazionalismoa.

En la década de los 20, el vasco-filipino Manuel de Ynchausti grabó una serie de documentales sobre la cultura tradicional en distintos territorios vascos: Eusko Ikusgayak. Desde la década de los 80, estas películas se conservan en la Filmoteca Vasca, pero se ha investigado muy poco sobre ellas, y su historia es totalmente desconocida en el mundo vasco. Sin embargo, su importancia histórica y cultural es notoria, ya que, además de constituir unas de las perlas más antiguas de la cinematografía vasca, su autor, Ynchausti, fue el precursor de una tradición fílmica de representación de Euskal Herria.

Palabras Clave: Cine vasco. Manuel Ynchausti. Eusko Ikusgayak. Etnografía. Imaginería. Nacionalismo.

Dans les années 20, le bascophone philippin Manuel de Ynchausti a tourné, dans différents territoires basques, plusieurs documentaires portant sur la culture traditionnelle : Eusko ikusgayak. Depuis les années 80, les films sont conservés par la filmothèque Euskadiko Filmategia. Très peu étudiés, leur histoire reste inconnue de la communauté basque. Néanmoins, leur valeur historique et culturelle est indéniable car ce sont les joyaux cinématographiques basques les plus anciens et parce qu'Ynchausti se pose en avant-gardiste d'un cinéma reflétant les traditions populaires basques.

Mots-Clés : Cinéma basque. Manuel Ynchausti. Eusko Ikusgayak. Ethnographie. Imagerie. Nationalisme.

Eusko Ikusgayak:

Euskal zinematografiaren amatxi ahantzia

(*Eusko Ikusgayak*: the forgotten
grandmother of Basque Cinematography)

Martinez Martinez, Josu

Euskal Herriko Unibertsitatea.
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.
Sarriena auzoa, z/g. 48940 Leioa
josu.martinez@ehu.eus

1. Sarrera

Euskal Herrian zinema bere lehen urratsak ematen ari zen sasoian, gure zinematografia petralaren historiaurreko garaietan, Manuel de Ynchausti Filipinetako euskalduna euskal lurraldeetan barrena ibili zen, 35 mm-ko kamara bat aldean zeramala, tokiko dantza, jolas eta ohitura bereziak filmatuz. Haren lanaren fruitu dugu *Eusko Ikusgayak* film laburren saila, 1923 eta 1928 urteen artean burutua, Eusko Ikaskuntzaren akuilupean.

Film amateurak dira *Eusko Ikusgayak* sailekoak, asmo estetiko-narratiboek mugitzen zuten zinefilo batek baino, euskal kulturarekiko maitasunez ziharduen ofiziotik kanpoko idealista batek eginak. Haatik, denboraren igarotzeak ematen digun begiradaz esan dezakegu, haien garrantzia historikoa handia dela. Izan ere, garai hartako zenbait azturaren lekuko bizia eta iturri etnografiko paregabea izateaz gain, kameratik Euskal Herriari begiratzeko manera baten aitzindaria da Ynchaustiren lana, sustrai erromantikoko ikuspegi folkloristarena. Haren ondotik, aro, jatorri eta ideologia ezberdineko zinegileek, *Eusko Ikusgayak*-en ageri diren motibo bisualetako asko erabili dituzte haien dokumentaletan Euskal Herria irudikatzeko. Hala, nolabait esateko, XX. mende osoan iraun duen tradizio zinematografiko bateko katebegitza har genezake. Euskalduntasunaren inguruko iruditeria oso zabaldu bat pantailara eramaten lehenetakoa; desagertzeko arriskuan dagoen herri bereziarena. Halaber, azpimarratzekoa da zinema mutuaren garaian egonik ere, Ynchaustiren filmek euskara dutela hizkuntza nagusi intertitulu esplikatioetan; hots, euskaraz azaltzen dela irudiek erakusten dutena. Horretan ere, aitzindari dira.

Baina horiek denak horrela izanagatik, *Eusko Ikusgayak* saila arras ezezaguna da euskaldungoaren zati handi batentzat. Euskal ondare kulturalarekin usu gertatu bezala, ahanzturaren eta gutxiespenaren historia izan da harena, eta ahal bezala igaro du XX. mendearen zati handiena, behar bezalako aitortza eta kontserbazioaren faltan, egilearen familiaren etxeko ganbaran gordeta.

80ko hamarkada hastapenetik, Euskadiko Filategian dira filmak. Eta garai hartan euskal zinemari buruz publikatu ziren bi monografia nagusiek, euskal zinemagintzaren historiografian mugarri izan ziren Jose Maria Unsainen *El Cine y los*

Vascos¹ eta Santos Zunzuneguiaren *El cine en el País Vasco*² liburuek atal labur bana dedikatu zieten. Alta, ondorengo hogeita hamar urteetan argitaratutako lanek apenas erreparatu diote Ynchaustiren jardunari, eta kasurik hoberenean, Unsain eta Zunzunegui idatzitakoa bildu dute; baina sekula gaian sakondu gabe.

Ondorengo lerroek, beraz, merezi duten atentzioa eskaini gura diete *Eusko Ikusgayak* sailari eta Manuel de Ynchaustiren figurari, orain arte erabili gabeko iturriekin haien ibilbide historiografikoa osatuz, eta filmen katalogazio oso baterako saiakera eginez. Horrekin batera, filmak haien kontestuan aztertuko ditugu, eta Euskal Herriaz berantago burututako beste zenbait dokumentalen iruditeriarekin erkatu; ardatz horretan Ynchaustik egindako ekarpena ezagutzeko.

2. Erabilitako bideez bi hitz

Ikuspegi historikotik aztertuko ditugu Ynchaustiren lan zinematografikoa eta haren ingurumaria. Horretarako, uretara botatzean harrixka batek egiten dituen uhinek legez, geruzaz geruza hurbiltzen joanen gara mamira.

Hasteko, zinemak Euskal Herrian emandako lehen urratsak oroituko ditugu, 20ko hamarkadan asmakizun berriak zuen presentzia eta burutu ziren lan garrantzitsuenak erreparatuz. Horrekin batera, historiako aro ezberdinetan Euskal Herria errepresentatu duten zenbait filmen tradizioa aztertuko dugu, Ynchaustiren lanekin antzekotasunak eduki litzaketen lanak atzeman nahian.

Talaia horretatik, *Eusko Ikusgayak* esperientziari helduko diogu. Ynchaustiren biografia osatzearekin batera, filmen sorrera eta ekoizpena nola burutu zen eta ze zabalpen ukan zuten mamituko dugu, eta filmak banan bana sailkatuko ditugu, bertan agertzen dena identifikatuz. Horiek denak egin eta Ynchaustiren lana Euskal Herriaz burututako beste filmekin erkatuta, haren inguruko ikuspegi zabal bat osatzeko moduan egonen gara, eta hala, zenbait ondorio probisional ateratzeko.

Ikerbidaia hau aurrera eramateko, bide ezberdinak erabili dira, kualitatiboak guztiak. Lehenik eta behin, analisi bibliografiko eta hemerografikoa burutu dugu, garaiko prentsan orain arteko obretan aipatuak ez ziren zenbait erreferentzia aurkituz. Aldi berean, Eusko Ikaskuntzaren artxibo historikoetan, kontserbatzen den garaiko dokumentazio urria eruz arakatu dugu: hain zuzen ere, 1922 eta 1930 urteen arteko erakundearen akta eta barne buletin guztiak (bertan filmei egindako zenbait aipamen topatuz), eta bereziki, bazkideen korrespondentzia (bertan, Manuel de Ynchaustik filmak aipatuz erakundeko kide ezberdinekin elkartrukaturako hamazazpi gutun atzemanaz).

Bestalde, Manuel de Ynchaustiren bi seme-alabarekin elkarriketa sakonak garatu ditugu: Miren de Ynchaustirekin, aurrez aurre Uztartitzeko Intxausti-Baita etxean, eta Filipinetan bizi den Antonio Maria de Ynchaustirekin, gutun bidez hiru

1. UNSAIN, Jose Maria. *El cine y los vascos*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1985; 355 orr.

2. ZUNZUNEGUI, Santos. *El cine en el País Vasco*. Bilbao: Bizkaiko Foru aldundia, 1985; 605 orr.

galdetegi luze igorritz. Horiek guztiak eginda, Euskadiko Filmategian gordetzen diren filmak bisionatu ditugu, lau egunez. Azkenekoan, Jose Ignazio Ansorena txistulari eta folklorean aditua ekarri dugu gurekin filmak ikustera, eta hari esker, zenbait informazio osagarri jakin ahal izan ditugu; hala nola, filmetan agertzen diren lekuen eta pertsonen izenak.

Sabino Arana Fundazioaren eta Barandiaran Fundazioaren funtsak ere kontsultatu ditugu, baina emaitza handirik gabe. Eta Aita Donostiaren korrespondentziaren atzetik, Iruñeko Fraide Kaputxinoen artxibategia kontsultatzen saiatu gara, baina ez dugu sartzeko baimenik ukan.

3. Zinemaren hasmenta euskal herrian

Sortu eta berehala iritsi zen zinema Euskal Herrira. 1896an, Lumière anaiak Biarritzerara jin ziren itsasoa hartzeko asmoz eta bertan filmatu zuten *Rochers de la Vierge* filma, aipatu haitzaren irudiak erakusten zituen. Horren ondotik, emeki emeki, gainontzeko euskal hiriburuek ere ezagutu zuten asmakizun berria: Iruñean, Bilbon, Donostian edo eta Gasteizen, bazter eta jai esanguratsuak filmatu zituzten eta kanpotik ekarritako filmen proiektzioak antolatzen hasi ziren. Zinemaren hasmenta garaiotan aditu diren Jean Claude Seguin eta Jon Letamendi ikerlariek diotenez, lehen urte hauetako filmatze jarduna zinez handia izan zen gurean, ondoko lurraldeekin konparatuta.

El numero de películas rodadas en Euskal Herria durante los dos primeros años de existencia del cinematógrafo es inusualmente elevado respecto al de otros territorios; y de calidad, porque casi todas las imágenes fueron captadas por la cámara y la película más perfectas de su tiempo: las de la firma Lumière”³.

Baina aro oparo hark ez zuen ainitz iraun. XX. mendea sartzearekin, zinemaren exhibizioak zabaltzen segitu zuen arren, produkzioa bakandu egin zen berehala. Besteak beste, Euskal Herriak instituzio propiorik ez edukitzean, guno urbanoek pisu demografiko handiegia ez izatean eta Bizkaiko kapitalismoak asmakuntza berriarekiko interesik ez erakustean, industriarik ez zen garatu bertan, eta horrek, produkzio jarraitu bat egonkortzea ezinezko bilakatu zuen.

Ordutik, autonomia aro laburretan salbu, leku periferiko hutsa izan zen zinemarentzat Euskal Herria. Hala, zazpigarren arteak berezko zuen produkzio eta komertzializazio prozesu industrialaren orde, kuriaz betetako *Kixote*-en artisau lanak ehundu zuen XX. mendearen zati handiaren euskal zinema. Lantzean behin, animalako ahalegin pertsonalaren bidez filmeren bat aurrera ateratzea lortzen zuten zinemagile hauengatik izan ez balitz, eremu aski desertikoa zatekeen gurea.

Ikusleak aldiz, segidan aurkitu zituen Euskal Herrian zinemak. XX. mendeko lehen hamarkadarako, ezohiko zerbait izateari utzia zion, eta hirietako eguneroko-

3. LETAMENDI, J. eta SEGUIN, Jean C., Los primeros rodajes de Euskalherria: imágenes ocultas tras la bruma del pasado. In *Ikusgaiak* 4, 2000; 15-27 orr.



El mayorazgo de Basterretxe filmaren afixa

tasunean txertatutako ikuskizuna zen. Unsainen arabera, 1915erako, zinema sala zuten Bizkaian, jadanik, Barakaldo, Algorta, Bermeo, Portugalete, Erandio, Ortuella, Santurtzi, Lekeitio edo eta Sestaok; eta zenbait kafetan (Zorrilla kafea Gernikan) eta frontoitan ere (Kursaal frontoia, Bilbon) zinema erakusten zuten erregulariki. Gipuzkoan berriz, 1918rako, hamalau zinema sala zeuden Donostian, eta *La Voz de Guipuzcoa* kazetako “*El reinado de la peli*” kritika ezagunak zioenez, “*la afición al cine constituye en San Sebastian una enfermedad que ha atacado a todas las clases sociales*”⁴.

Klase sozial guztietara iristen zen, beraz, zinema. Ez erresistentziarik gabe, hala ere. Sindikatu batzuentzat, patroiek langileen artean prentsa errebeldearen irakurketa ordezkatzeko asmatutako “*herriaren opioa*” zen; sektore katolikoentzat, berriz, perbertsio hutsa; eta euskal abertzaleentzat, aurrerago ikusiko dugunez, euskal nortasuna ahuldu eta kanpoko ohiturak barreiatzen zituen medio arriskutsua.

Urte haietan Euskal Herrian ekoitzi ziren filmen artean, gehienak amateurak izan ziren. Historialariek azpimarratzen duten lehenetakoa *Un drama en Bilbao* dugu, Alejandro de Olavarriak 1923an zuzendua. Ondotik etorri ziren, besteak

4. Idem 1. nota.

beste, *Martinchu Perugorria en día de Romería* (1925), Txomin del Regatoren estiloko euskal iletratu baten ibilera irringarriak kontatzen zituen; eta batez ere, *Edurne, modista bilbaína* (Telesforo Gil del Espinar, 1924) eta *El mayorazgo de Basterretxe* (Mauro eta Victor Azcona, 1929), denak Bilbo inguruan mustutako fikziozko lan artsanalak.

Edurne, modista bilbaína, langile giroko melodrama urbanoa zen. *El mayorazgo de Basterretxe*, berriz, euskal baserri munduko maitasun istorioa, Pierre Lhanderen *Mirentxu* eleberrian oinarritua. Bertan, euskal mundu tradizionalako pertsonaia eta ohiturak ziren nagusi, Olavarria eta Gil de Espinarren giro urbano industrialetik urrun. Zunzuneguiaren ustez Azcona anaien hautu hark, bazuen zer-bait aitzindaritik.

Lo más significativo de este film reside en tratarse, como lo explicitaba la propaganda, de “una película nacional de ambiente vasco”. (...) Y aquí “ambiente vasco” ya no es, como en las producciones de “Hispania Films”, el País Vasco industrial y urbano, sino ese lugar de costumbres ancestrales y apego a la tierra de los mayores, tan ligado a cierta ideología nacionalista. No es que el film fuese nacionalista en el sentido político de la expresión, pero sí que encarnaba una cierta concepción del País Vasco que se extendía por los alrededores del nacionalismo militante y de la que participaban amplios sectores de la población. El Mayorazgo de Basterretxe viene a inaugurar una tradición cinematográfica que buena parte del moderno cine vasco retomará⁵.

Zunzuneguik aipatzen duen tradizio zinematografikoa, dokumentalaren eremuan garatu zen, batik bat, fikzioan baino gehiago. *El Mayorazgo de Basterretxe*-k irudikatzen zuen Euskal Herri erromantiko eta etnografikoa, behin eta berriz agertuko zen, handik aurrera, dozenaka film dokumentaletan, ondoko atalean ikusiko dugun gisan.

3.1. Euskal Herria zineman

Euskal Herrian industriarik sortu ez arren, Euskal Herria bera usu agertu zen zinemán, arte honen hasmenta urteetatik. Are gehiago, ainitz dira, garai ezberdinetan, alde edo moldez Euskal Herria eta haren berezitasuna gai gisa hartu duten filmak, gehientsuenak dokumentalak. Euskal zinematografiaren katalogo historiko orokorrik existitzen ez den arren, 80ko hamarkadan Bakedanok⁶ eta Unsainek⁷ eginiko datu base zabalei begiratu bat botatzea aski da horretaz ohartzeko.

Lehen lehenik, atzerritarrak ziren etorri Euskal Herria filmatzera. Oixtion aipatutako Lumière anaiez geroztik, etenik gabe XX. mende osoan zehar, dozenaka zinemagilek erretratatu dituzte herrialdeko paisaia eta jendea, oro har, kultura ezberdin eta aspaldiko topos exotiko gisa errepresentatuz. Iruñeko Punto de Vista dokumental jaialdiko 2015ko edizioan antolatutako *Chez les Basques* zikloa horren lekuko da. Zinemagintzaren historian zehar Euskal Herria filmatu zuten zenbait

5. Idem 2. nota

6. Santos Zunzuneguiaren liburuaren barnean, eranskin gisa publikatua. Ikus 2. nota.

7. Idem 1. nota

egile ospetsuren lanak proiektatu ziren bertan; besteak beste, Louis Delluc, Orson Welles, Otar Ioselliani edo eta Huber Knapp-enak. Festibalaren programak honela aurkezten zuen mostra:

“Pocos lugares del mundo pueden presumir de contar con una pléyade de cineastas reconocidos que década tras década se han acercado a retratar la cultura de uno de los pueblos vivos más antiguos de Europa. Ese interés etnográfico por encima del puramente folklórico y totalmente alejado del político es el que traza la selección”⁸.

Iruñean proiektatutako hamabost tituluetan ikusi ahal izan zenez, objektu filmikoaren ikuspegi oso antzekoa erakusten zuten atzerritarrek Euskal Herriaz egin-dako dokumental gehienek. Herrialde zaharra, kasik primitiboak, hizkuntza eta kultura berezia dituenak, eta desagertzeko arriskuan egon arren, haren nortasunaz harro dagoena. Etnografian zentratutako begirada erromantikoa da, XIX. mendean zehar garatu eta indartu zen iruditeria baten oihartzuna.

Erromantizismoaren arribatzeak, Euskal Herriaren irudia ziklo historiko berri batean sartu zuen, intelektual europarren interesa piztuz, eta euskal “*diferentzia-aren*” narratiba oso bat sortuz. Joera honen aitzatza, Wilhem Von Humboldt hartu ohi da, Berlineko unibertsitatearen fundatzaile izan zen zientifiko prusiar famatua. “*Euskaldunen lurraldera*” (espresio hori baliatzen zuen) egin zituen bidaietan, Humboldt-ek jatorri misterioetsuko nazio bat deskubritu zuen, Europako hizkuntza zaharrenaren jabe zena, eta txundituta, literatura ainitz idatzi zuen euskaldunei buruz, haien “*diferentzia*” azpimarratuz, ikuspegi erromantiko batetik.

Humboldt-aren ondotik, XIX. mende osoan zehar, hainbat eta hainbat izanzen ziren euskaldunen misterioaren xerka Euskal Herrira etorritako antropologo, linguista eta idazle erromantikoak. Zulaikak dioskunez, intelektual europarrei zor zaie, bertakoei baino lehen, euskal nazio diferentziatuaren narratiba. “*En ausencia de una narrativa literaria propia, la antropología ha ocupado un papel privilegiado en procurar un discurso fundacional de (...) la identidad cultural vasca*”. Haiek zuten, eta ez euskaldunek, euskal ezberdintasun etnikoa “deskubritu” eta mirari kultural gisa balorizatu: “*Fue la ciencia europea y no la literatura fuerista o nacionalista la que puso en el calendero el tema de la raza vasca a mediados del siglo XIX*”⁹.

Bidaia-irromantiko eta intelektual europarren erromesaldi hark preskribatu zituen, nolabait esateko, euskaldunen ezaugarri kulturalak (hizkuntza zahar eta misterioetsua, folklore eta mitologia aberatsa, partikularitasunez betetako bizibide tradizionala), hauetako zenbait (industrializazio bidean ziren eskualdeetako bizimoldeak, mestizaiak eta abar) bazterrean utziz. “*Herri natibo*” bat aurkitu zuten Pirinioetan, eta euskaldunak “*Europako indio*” bihurtu. Zulaikaren hitzetan: “*museo etnografiko biziduna*”. Hala, euskaldun zenbait herri kontzientziaren jabe egin zirelarik, kanpotarrek eraikitako diskurtsoaren elementuak bereganatu zituzten, haien

8. *Chez les Basques*. Prentsa dosierra. Festival Internacional de Cine Documental Punto de Vista. Iruñea: 2015.

9. ZULAIKA, Joseba, *Del cromañon al carnaval*, Donostia: Erein, 1996; 253 orr.

berezitasun kulturala sinetsiz. Zulaikari segituz, beraz, “*Todo vasco, sobre todo cuando viaja fuera de su país, es, en cierta medida, un vasco inventado por la antropología cultural*”¹⁰.

Antropología atzerritarak sortutako narratiba horretatik, literaturak eta pinturak gogotik edan zuten hastapenetik, haren zabalpena lagunduz. Hala, Victor Hugo edo eta Pierre Loti bezalako idazle famatu zenbaitek, Euskal Herria bizileku hartu eta bertako giroari buruz idatzi zuten. Erromantikoek hainbeste maite zuten “*autentikotasuna*”, euskaldunengan aurkitzen zuten. Denbora modernoaren zurrunbiloan sartzeke zegoen mundu puru, kasik primitiboa ikusten zuten euskaldunen herrian. Lotik esaterako, halaxe idazten zuen *Ramuntcho* eleberri famatuan, Euskal Herrian erlojuak existituko ez balira bezala: “*les années changent, moins qu’ailleurs, les choses*”¹¹. Baina bistan zenez, denbora ez zen geldirik egoten. Eta erromantikoon literatura honi nostalgia sentimendu sakona dario; desagertzen ari den kultura baten aurrean egotearena.

Pintura erromantiko eta kostunbristak, bestalde, zientifiko eta idazleen euskaltasunari buruzko diskurtsoa iruditan jarri zuen. Zentzu horretan, Pedro Manterolak dioen gisan, haren ekarpena garrantzitsua izan zen, nekazaritzan, arrantzan eta folklorean oinarritutako euskaltasunaren iruditeria hezurmamitzeko. Haren ustez, margolarion lana izan zen:

El principal responsable de la configuración de un biotipo de hombre vasco con unos rasgos morfológicos tan definidos, que ni los estudios de Aranzadi o Barandiarán hubieran hecho prosperar sin la presencia y el éxito alcanzado por cuadros como el que representan los “Layadores” de Arteta o el poderoso y solemne dios del mar, “El marinero vasco Santhi Andia”, de Ramón de Zubiaurre”¹².

Horiek horrela, XIX. mendean zehar liburuek eta margoek Euskal Herriaren irudi etnografiko eta erromantiko bat sortu bazuten, euskaldunak Europako indio gisa aurkeztuz, XX. mendean, zinemak, iruditeria hau are gehiago popularizatu zuen, masetara heltzeko eta “erreal” mugimenduan erakusteko gaitasunari esker. Esaterako, jadanik 1917an, *Eusko Ikusgayak* errodatu baino zenbait urte lehenago, Pathe Frères ekoiztetxe frantses ezagunak, Euskal Herriari buruz dokumental bat egiteko babesa galdetu zion Bizkaiko Foru Aldundiari. Zuzuneguik Diputazioaren administrazio artxiboan aurkitutako txostenean ageri denez, ekoizleek hala arrazoitzen zuten haien interesa:

Ninguna de las regiones que venimos visitando se presta tanto como la vasca a hacer un trabajo artístico e interesante. Aparte de sus innegables bellezas de paisaje, tiene mucho característico en las costumbres de sus habitantes, que recuerdan la vida de otros tiempos, en ellas se conservan con pureza no igualada por otros países las viejas tradiciones. Nuestra obra que tiende a dar una idea perfecta y acabada de estas tierras no podía pasar

10. Idem.

11. LOTI, Pierre. *Ramuntcho*, Paris: Collection grandes ecrivains, 1897. 76. orrialdean.

12. MANTEROLA, Pedro, “Introducción”, in GUASCH, Ana Maria, *Arte e ideología en el País Vasco*, Madrid: Akal, 1985.

desapercibido este aspecto vigoroso de la nacionalidad vasca y por ello se dispone a dar una cumplida idea de él¹³.

Euskal Herriari edo haren elementu tradizionalei buruz (dantza, pilota, musika...), atzeritar zinegileek XX. mendean zehar osatutako filmak zenbaezinak dira. Dokumental batzuk soilik aipatuz, honakoak zerrendatu genitzake: *Noce au Pays Basque* (Pathé, 1913), *Le chemin d'Ernoa* (Louis Delluc, 1921), *Au Pays des Basques* (Maurice Champreux, 1930), *Im Baskenlande* (H. Körösi, 1931), *Euzkadi* (René Le Haff, 1936), *Im lande der Basken* (Herbest Brieger, 1944) *Der Basken* (egile eta data ezezagunak); *Das Volk der Basken* (egile eta data ezezagunak), *The Basques and their Country* (Raymond Bricon-Walt Disney, 1955), *The Land of the Basques* (Orson Welles, 1955), *The Basque Pelote* (Orson Welles, 1955) *Le curé basque de Gréciette* (Hubert Knapp, 1958), *Euskal Herrian* (E. Naillon, 1959), *Retour aux Pyrénées* (Jean Faurez, 1960), *Basque River* (Matthew Nathan, 1960), *Euskadi été 1982* (Otar Ioselliani, 1982), *Pays Basque* (David Pritchard, 1987). Baina tradizio zinematografiko hau, gure egunetara iristen da. Horren lekuko dugu joan den udazkenean Eugene Green zinegile eta idazle errekonozituak estreinatu duen *Hitz egín / Faire la parole* dokumentala, non Euskal Herri idealizatu bat ageri zaigun.

Zulaikak dioen gisan, pentsalari abertzale lokalek europar antropologoek lanetatik edan baldin bazuten, ez da harritzekoa euskal zinegileek ere, kanpotar zinegileen iruditeria bere egitea. Kanpotarrek bezala, euskal herritarrek hainbat film



Au Pays des Basques film frantsesaren fotograma

13. Idem 2. nota.

eskaini baitizkiote XX. mende osoan sorlekua erretratatzeari; eta bisitariak eginda-koaren termino oso antzekoetan erretratatu dute, gainera. Garaiak garai, esan liteke, Teodoro Hernandorenaren *Euzkadi*¹⁴ (1933), André Madreren *Gure Sor Lekua* (1956), Gotzon Elortzaren *Aberria* (1961), Fernando Larruquert eta Nestor Basterretxearen *Ama Lur* (1968), edo eta Antton Ezeizak koordinatutako *Ikuska* saileko hainbat ale (1979-1984) besteak beste, euskaltasunaren inguruko imajinario etnografiko-erromantikoaren zordun zuzenak direla, eta zentzu horretan, atzerritar lanekin batera, Zunzuneguik aipatu tradizio zinematografikoan koka ditzakegula.

Alta, euskaldunek beren herriaz egindako dokumentalen ekoizpenaren historia, produkzio atzerritarrekiko ezberdina da. Esana dugu lehenago, zinema industriarik ez zela garatu sekula Euskal Herrian, eta beraz, ekoiztetxe handien eskutik iritsitako atzerritar profesional prestigiotsuen aldean, idealista amateurrek izan ziren gehienetan euskal zinemagileak, laguntza gutxi eta pasio askorekin jardundako frankotiratzailleak. Euskaltzaletasunak akuilaturik, abentura pertsonal handietan sartutako *Kixoteak*.

Euskal Herria filmatu zuten euskal herritarren profila, oso antzekoa da zentzu askotan, eta ezohikotasunak ezaugarritzen du: Hernandorena, Madré, Elortza, Larruquert, Basterretxea, Ezeiza... zinema egitea permititzen zien ezohiko posizio sozial edo ekonomikoa zuten euskaltzale ekintzaileak ziren: aberatsak, medikuak, militarrek, errefuxiatuak, banguardiako artistak edo kanpoan ikasiak. Hala, haien lanak ere ezohikoak izan ziren, atzerritarrenak baino askoz xumeagoak; bai ekoizpenari eta bai zabalpenari dagokionez. Ondorengo orrialdeetan ikusiko dugunez, Manuel de Ynchausti eta *Eusko Ikusgayak* sailaren historia, gisa berekoa izan zen.

4. Eusko Ikusgayak: ezohiko pario ausarta

Euskal Herriari eta haren berezitasun kulturalari buruzko filmen marko honetan, lehen esperientziatako bat *Eusko Ikusgayak* saila izan zen. Manuel de Ynchaustik, zinemaren asmakuntza baino hogeita bost urte berantago, kamera bat erosi eta Euskal Herriko bazter ugari kurritu zituen, bertako kultur adierazpideak filmatuz, galtzear zen kultura baten aurrean egotearen kontzientziak eta harekiko maitasunez.

Ynchaustik bere film txikiak egiten ziharduela, zinema dokumentala jaiotzen ari zen munduan. Autore gehienek, 1922an Estatu Batuetan estreinatutako *Nanook of the North* jotzen dute, preseski, historiako lehen dokumentaltzat, nahiz eta zinemaren asmakuntzatik bertatik filmatzen ziren bizitza errealeko gertakariak jasotzen zituzten dokumentu filmikoak. 20ko hamarkadan aldiz, gainontzeko herrialde handietara hedatu zen Flaherty-k irudi errealekin historia landuak kontatuz zabaldutako joera berria: Clementek¹⁵, Dziga Vertov-en saiakerak (1923), Caval-

14. Jakina denez, film hau galduta dago; baina hari buruz ditugun datuek eta Zunzuneguik argitaratutako gidoiaren berreraikuntzak, horixe adierazten dute. Ikus: ZUNZUNEGUI, Santos. *Euzkadi: un film de Teodoro Emandorena* (1933-1983). Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína, 1983.

15. CLEMENTE, J.L: *Robert Flaherty*. Madrid: RIALP, 1963.

cantiren *Rien que les heures* (1926) frantziarra, Ruttmann-en *Berlin, hiriaren sinfonia* (1927) alemaniarra, eta Griersonen *Drifters* ingelesa (1929) aipatzen ditu, besteak beste, dokumentalgintzaren hastapeneko film-ikur gisa.

Guzti horien garaiakide izanagatik, Ynchaustiren lanak beste maila batean zeuden, ordea. Euskal zinemagintzaren historiografian usu dokumentaltzat hartu izan badira ere, *Eusko Ikusgayak* saila hurbilago zegoen Lumière anaien dokumentu filmikoetatik, Flaherty-ren *Nanook* dokumentaletik baino. Batetik, Ynchaustiren filmek gutxitan “kontatzen” zuten istorio bat, eta egiten zutenean, arras modu sinplean. Bestetik, haien xedea ez zen zinema aretoetan zabaltzea.

Eusko Ikusgayak, batez ere, euskal kulturaren kontserbazioa eta ezagutza sustatzeko burutu zituen Ynchaustik, eta zentzu horretan, bere helburuak hurbilago zeuden zinema zientifiko eta pedagogikotik, entretenimendu filmagintza masibotik baino. Ordurako, biztanleriak filmak gogotik irensten zituela oharturik, asmo zientifiko, kultural eta pedagogikoekin ere baliatzen zen zinema. Unsainek dioskunez¹⁶, esaterako, 20ko hamarkada osoan zehar, Bizkaiko auzo eskoletan zinema proiektatzen zen hurrei kultura erakusteko tresna gisa, horretarako, Bizkaiko diputazioak Pathé etxeari erositako zenbait proiektore eta pelikula erabiliz. Ildo beretik, lurraldeko aurrezki kutxek ere, gai zientifiko eta laborei buruzko zenbait filmeren ekoizpena bultzatu zuten, hala nola abeltzaintzari buruzkoak, tokiko baserritarrei jakintzak transmititzeko asmoa zutenak¹⁷.

Nolabait, zinema dokumentalaren eta zinema etnografikoaren aurrekari xumetzat jo daiteke Ynchaustiren lana. Lan artisanala zen, amateurra, jakintza teknikorik eza boluntarismoz ordezkatu zuena. Bere film laburrak erabat mugatuak dira lengoai zinematografikoari dagokionez, horretan ez da dudarik. Unsainek, haien estiloa deskribatzean “*tosquedad cinematográfica*” aipatzen du, baina segidan nabarmenduz, hala ere “*no puede hacer perder de vista su valor documental y su condición de ser las primeras realizadas en España con una clara voluntad etnográfica*”¹⁸. Zunzuneguik berriz, hala dio:

El interés de las cintas es, cinematográficamente hablando, muy limitado, aunque tienen la virtud de tratarse, probablemente, de las primeras imágenes filmadas en determinados lugares de Navarra como Isaba, el valle del Baztán, Ochagavía etc y de recoger unas costumbres amenazadas de extinción. Desde ese punto de vista su interés es menos estético que etnográfico y folclorista¹⁹.

Horiek hola, *Eusko Ikusgayak*, bere muga eta aje guztiekin, gure zinemaren XX. mendeko historiaren isla dugu. Garai hartan, munduan egiten zen zinemagintzatik urruti, Manuel de Ynchausti bezalako gizonak ziren Euskal Herriko zinemagileak.

16. Idem 1. nota

17. Ibidem

18. Ibidem

19. Idem 2. nota

4.1. Ezohiko gizona

Eusko Ikusgayak sailaren sorrerari eta ekoizpenari heldu aitzin, haien egileari zenbait lerro dedikatu beharrean gaude. Izan ere, Ynchaustiren ezohiko bizitza, pasioa eta posizio soziala giltzarri dira haren aitzindari lana ulertu ahal izateko.

Manuel Maria de Ynchausti Manilan jaio zen XX. mendearekin batera, 1900 urtean. Haren aitona Filipinetara joanez geroztik, herrialdeko lehen industria *trust*-a eraiki zuten Ynchaustitarrek belaunaldiz belaunaldi: itsas merkataritza, nekazaritza eta industria arloak (azukre lantegiak, distilategiak, pintura fabrikak, soka fabrikak, porlan lantegiak...) biltzen zituen inperio ekonomikoa, “Casa Ynchausti y Cia”.

Garai konbultsoak ziren, hala ere. Iraultza filipinoaren eta gerla hispano-estatubatuarren ondotik, filipinar irlek Espainiaren menpeko izateari utzi zioten 1898ko abenduan, Estatu Batuen menpeko izatera pasatzeko. Horri eskerrak, estatubatuar hiritartasuna zeukan Ynchaustik, biziki ongi etorriko zitzaiona hainbat urte beranduago, 1936ko gerla garaian Hego Euskal Herritik ateratzeko, eta ondorengo erbesteetan New Yorken plantatu eta gainontzeko euskaldunei ateak zabaltzeko.

Espainiaren *Desastre*aren urteetako seme izateak, agian, eragina izanzen zuen bere burua euskalduntzat hartzearekin, espainoltzat bainoago. Alta, haren alaba Miren de Ynchaustik dioenez, jatorriaren kontzientzia hartzeko klabea, haur denboran irakasle izan zuen fraide batekiko harremana izan zen. Lekarozetik etorritako kaputxino hark, behin eta berriz errepikatzen zion ez ahanzteko bere abizena euskalduna zela, eta ez espainola, eta beraz, euskaldun gisa Euskal Herriaren alde egin behar zuela²⁰. Haur denborako irakaspen single haiek, gaztaroan umotu eta garatu zituen; Madrilen soldaduska egiten ari zela. Han, erregimentukide egokitu zitzaion Ricardo de Leizaola, Jesus Mariaren anaia; eta haren lagun bihurturik, euskal abertzale mundua ezagutu eta buru belarri sartu zen bertan.

20ko hamarkadan, jadanik Eusko Ikaskuntzako kide zela, zuzenbidea ikasi zuen Madrilen. Horregatik, Espainiako hiriburuaren eta Donostiaren artean pasa zituen urteok (familiak etxe bat erosi zuen bertan), harik eta 1926an, karrera bukatu eta Ana Belen Larrauri donostiar gaztearekin esposatu zen arte. Ordutik aurrera, Manila eta Donostia artean emanen zuten denbora; aita hil ondotik bera bihurturik orain “Ynchausti y Cia” konpainiaren nagusia.

Ez zen horretan luzaz jardun, ordea. 1933an, Filipinetan altxamendu nazionalista bat gertatzeko aukera gero eta hurbilago sentitzen zela, zuhurki jokatu eta handik hanka egitea deliberatu zuen. Hala, “Ynchausti y Cia” desegin eta industria aktiboen zati handi bat salduta, Euskal Herrian plantatu zen definitiboki. Irletan zenbait negozio martxan utzi eta haren menpeko administratzaile baten eskuetan segitu bazuten ere, ez zen sekula sorterrira itzuli.

Hurrengo urteak, Ynchausti-Larrauri familia hazten zen bitartean, eliza katolikoaren obra sozialen eta erakunde euskaltzale eta abertzaleen aldeko lana egiten eman zituen. Lehen alderditik, hierarkia eklesiastikoarekin harreman sendoak

20. YNCHAUSTI, Miren. Elkarriketa pertsonala. 2015-08-05



Manuel de Ynchausti

egitera iritsi zen, Pio XI Aita Santuarekin zenbait audientzia pribatu izateraino. Harrengandik, San Gregorioko Zaldun titulua ere jaso zuen, bere eskuzabaltasunaren pagutan. Euskal aferei dagokionez, berriz, II. Errepublikako garai emankorrak ziren; eta abertzaletasunak eta euskal kulturak loraldi aro bat bizi zuten. EAJren hazkunde politikoarekin batera, *Euzko Pizkundea* deitu mugimendua martxan zen: Aitzol-en Bertsolari Guduena, Lizardi, Lauaxeta eta Orixeren literatur mugimenduarena, Hermandorenaren *Euzkadi* filmarena... Haietako zenbaiten sustatze eta finantzatze lanetan, buru belarri aritu zen, nahiz eta laguntza itzalean ematea nahiago baitzuen, gehienetan haren ekarpena ez den ezagutua izan.

1936ko altxamenduaren ondotik, Ynchausti sendiaren bizitza lasaia errotik irauli zen. Eliza katolikoaren joerari jarraiki haren ama eta arrebak Francoren alde paratuak ziren arren, gure gizonak EAJ segitu eta Errepublikaren alde egin zuen, hautu honek espainiar estatuan zituen ondasun guztiak galtzea ekarri bazion ere. Bere pasaporte estatubatuarrari eskerrak, gerla piztu eta laster Estatu Batuetako ontzi militar batean ebakuatu zuten Ynchausti sendia, Donostian, eta ordutik, Uztaritze eta Paris artean plantatuta, euskal kausaren aldeko mila ekintza egitasmotan jardun zuen, batez ere nazioarteko harremanen arloan eta arlo humanitarioan. Manuel de Ynchaustik antolatu zuen, esaterako, Donibane Garaziko Zitadelan 500 euskal haur errefuxiatuen errezibitzea; eta Jatsun ere, osoki bere diruz pagatutako haur kolonia bat sortu zuen. Aldi berean, Frantziako hainbat goi pertsonalitatek²¹ osatutako *Ligue Internationale des Amis des Basques (LIAB)* erakundearen susta-

21. Haren lehendakari Verdier Pariseko kardinala izan zedin lortu zuen; eta baita lehen lerroko politikari eta intelektual zenbaitek parte hartzea.

tzaile nagusia izan zen itzalean eta Jose Antonio Aguirrek *De Guernica a Nueva York pasando por Berlin* liburuan kontatzen duenez, Berlinitik Estatu Batuetarako ihesa, Ynchaustik berak antolatu zion nagusiki, besteak beste, EEBBetako Estatu Idazkaritzan zituen harreman diplomatikoak baliatuz²².

1939tik hantxe bizi zen Ynchausti sendia, Estatu Batuetan, European II. Mundu Gerla zela eta. Bertatik, euskal abertzaleen aldeko aktibitateekin segitu zuen Ynchaustik; eta haren bitartez gauzatu zen, besteak beste, Manu de la Sotak eta euskal haur talde batek, 1940ko gabon gau egunean, Roosevelt presidenteari egindako bisita ofiziala.

Urte guztiotan, Ynchausti ez zen ofizialki EAJko kide izan, baina burukide jeltzaleek haietako batentzat zeukaten, eta maiz gonbidatzen zuten bileretara. Nolanahi dela, Jean Claude Larronde historialariak dioenez, Ynchaustik berak zituen finantzatzen Euzkadiko Gobernua, Euzkadi Buru Batzarra, Eusko Langileen Alkartasuna (ELA) eta Emakume Abertzale Batza²³.

II. Mundu Gerla bukatuta, familia Uztaritzera itzuli zen, Intxausti-Baita etxera. Ordutik aurrera, Iparraldean hegoaldeko errefuxiatuek antolatutako ekintza kulturalen bihotz-bihotzean jardun Ynchaustik. Hala, 1947an Biarritzen antolatutako Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresuaren antolatzaile nagusietakoa izan zen, eta beronen sail bateko zuzendari: "Euskaldunak munduan" zeritzona. Kongresu arrakastatsu honek berebiziko garrantzia izan zuen gerlaren ondotik Iparraldean hiltzaile zen euskal kulturaren berpizkundearentzat eta Hego eta Iparraldeko euskaltzaleek esku esku lan egin eta elkar ezagutzeko abiapuntua izan zen.

Handik zazpi urtera, 1954an Baionan eta Uztaritzen antolatutako VIII. Kongresuaren antolaketa ere parte zuen Ynchaustik, baina ordurako gaixorik zegoen, eta profil baxua eraman zuen. Eritasunaren ondorioz, azken urteetan bere aktibitatea ainitz murriztu ondotik, 1961an hiltzaile zen, Uztaritzeko Intxausti-Baitan. Telesforo Monzon, Jesus Maria Leizaola eta Juan Manuel Epalza izan zituen azken beilarik.

Bistan denez, ezohiko pertsonaia izan zen Manuel de Ynchausti. Gutxitan ezagutu ditu euskal kulturak haren alde hain ekintzaile jokatu duten dirudun handiak, goi mailako mezenasak. Zentzu horretan, aldeak alde, Ynchausti Antoine d'Abbadierekin konparatu genezake, gure ustez, haren ekarpena berebizikoa baita XX. mendeko lehen erdialdearen euskal kultura ulertzeko.

4.2. Ezohiko proiektua

Baina Ynchausti ez zuen bere fortunak bakarrik ezohiko egin. Edo agian, bere fortunak beste hainbat arlotan ere ezohiko pertsonaia izatea ahalbideratu zion. Eta horixe da, hain zuzen, zinemaren kasua. Esana dugunez, Euskal Herrian zinema-industriarik ez egonki, posizio sozial berezia zuten jendeen ekimen pertsonaletik bakarrik sor zitezkeela euskal filmak. Baina horretarako, dirua izatea ez zen aski.

22. LARRONDE, Jean C, *Manuel de Ynchausti, etorri handiko mezenasa*, Donostia: Bidasoa, 1996; 121 orr.

23. Idem

Gogoa eta zinemarekiko pasioa ere behar ziren; eta urte haietan, euskal abertzaletasunak ez zuen baitezpada begi honez ikusten zazpigarren artea. Hala, horretan ere, ezohikoa izan zen Ynchausti. Besteek euskaltasunaren etsai bat ikusten zuten lekuan, haren alde lan egiteko tresna bat ikusten.

Nazioarte mailan eskuina eta eliza katolikoa bezala, Euskal Herrian ere abertzaleak izugarri uzkur agertu ziren zinemarekiko XX. mendeko lehen hamarkadetan. 1916an adibidez, *Euzkadi* egunkari nazionalistak boikota deklaratu dio zinemari, filmen berri emateari utziz.

Jakinik moral zentzunaren eta gustu onaren gaiztotzea sinetsezineko punturaino heldu dela latinkeriaren aitzinamenduari eta kultur gintzari esker, Euzkadiko hiri handietan nagusiki, begiak, sudurrak eta ahoa itxi beharrean aurkitu gara, simaur oldarraren aitzinean²⁴.

Garai hartan filmak mutuak zirela kontuan edukita, "latinkeriaren aitzinamendu" hura ez zekarren naski espainolaren presentziak. Gehiago zatekeen, beraz, euskal *izpirituarentzat*, edo antzeko kontzeptu abstrakturen batentzat arrisku. Hots, garbiki esateko, moralarentzat.

Ynchausti Eusko Ikusgayak filmatzen hasi zen sasoian, oraindik ere ugariak ziren zinema kondentatzen zuten artikulua prentsa abertzalean. Beti ere deseuskalduntzea aitzakia hartuta, hierarka abertzaleek zinemarekiko posizio atzerakoiak defendatzen segitzen zuten. *Aberri* aldizkarian, hala idatzi zuen Eli Gallastegi jeltzaleen buruzagi ospetsuak 1923an:

Baserri artean, artaldiaren erdian, iduri antiestetikoak kontraste gorrotagarria egiten duela inguruko baserriekin, "Ideal Cinema" bat ikusi dut zutik. Haren ustebako azaltzeak, euskal paisaia garbiena ikuste zoragarriaz olgatzen nindoala, samintasun ezkorrekin batu zaidan amorru bizi bat sortu dit. (...) "Ideal Cinema" erdakeria dakar gerokotzat herrietan, egingo duen gaitzik arinena²⁵.

Zorionez, elite euskaltzaleen artean, baziren ikusmira zabalagodunak ere. Bereziki, kultur mailan. Mendearen lehen urteotan, nazio mailako erakunde kultural zenbait sortu ziren. Garrantzitsuenak, Eskualzaleen Biltzarra, Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza. Lehena, 1901ean jaio zen mugaren bi aldeetako euskaltzaleen bilgune gisa, baina urte gutxiren buruan, haren aktibitatea kasik osoki Iparraldera mugatu zen. Euskararen Akademia berriz, 1919an sortu zen, Eusko Ikaskuntzaren lehen kongresuaren ondotik. Azken hau da guri gehien interesatzen zaiguna, haren gerizpean sortu baitzuen Ynchaustik bere lan zinematografikoa.

Sociedad de Estudios Vascos / *Eusko Ikaskuntza*, 1918an sortu zen, Hego Euskal Herriko lau foru aldundien babespean, euskal intelektualgoa bildu eta euskal kultura eta jakintza ikertu, sustatu eta zabaltzeko helburuarekin. Euskal Herriaren egituraketa edo eta ikastola eta euskal unibertsitatea bezalako egitasmo handientzat lan egin bazuen ere, lehen urte haietan, bere jardunaren parte handi bat, hizkuntzaren, folkloreakaren eta antropologiaren eremuetan zentratu zen; hortaz,

24. IZAGIRRE, Koldo, *Gure zinemaren historia petrala*, Donostia: Susa, 1996; 121 orr.

25. Ibidem.

ez da harritzekoa Ynchaustiren filmagaiak ere ildo horretakoak izatea, izan ere, sasoi hartan euskalduntasunaren inguruko kosmobisioaren ardatza zen etnografia.

Jose Miguel de Barandiaran edo eta Teodoro de Aranzadiren ikerketa handien garaia zen. Eta haiek baino lehen, esana dugunez, hamarkada luzeetan zehar, euskaldunen exotismoak eta berezitasunak txundituta, euskal hizkuntza misterio-tsua, folklore partikularra eta arraza ezaugarriak aztertzeraz etorritako jakintsuek euskalduntasunaren inguruko diskurtsoa eraiki zuten.

Kontuak kontu, Filipinetatik bere erroak berreskuratzeko gosez zetorren Manuel Ynchausti gaztea, euskal kulturaren inguruko munduan murgildu zen asabean sor lekura iristean. Hastapenetik, Eusko Ikaskuntzako bazkide eta RIEV, *Euskalerriaren alde* eta gisako aldizkariaren harpidedun egin, eta euskalgintzako figura esanguratsuen lagun bilakatu zen, ondare kulturala atxikitzearen kausari gogo bizi lotuz. Ez da ahanzi behar, 1923 hartan Primo de Rivera diktadorea zegoela agintean Espainian, eta ez zela aizu euskal kulturaren aldeko zernahi gauza. Horregatik, Eusko Ikaskuntzak berak ere, sorrerako asmo handiak pixka bat epeldu eta apalduak zituen, bere aktibitatea “akademikotasunera” mugatuz.

Garaian, Ynchausti gazteak, zinema ekipo profesional bat erosi zuen bere plazererako: 35 milimetoko BELL&HOWELL kamara profesional bat, hiru objektibo eta proiektorea²⁶. Aspalditik maite zuen argazkilaritza, eta zinemarekin liluratuta, oso gutxiren eskura zegoen tramankulu hura eskuratu eta han eta hemen filmaketa domestikoak egiten hasi zen, aisialdi denboretan. Bere gai kuttunak inpresionatu zituen, kontserbatuak izatea nahi zuen bihotzeko gaiak: hots, familiako bidaia eta ospakizunak eta euskal kulturako eszenak. Hala, 1923ko udan, Aita Donostiarekin Baztan aldean ibili zen, bertako dantzak filmatzen, eta irailean Donostian izandako zenbait gertakari kultural filmatu zituen.

Oharkabea, Ynchaustik *motu propio* egindako lan hauek, bete-betea erantzuten zioten Eusko Ikaskuntzak Oñatiko 1918ko sortze kongresuan bere buruari jarritako lan bati. Erakundearen Arte sailak, Euskal Herriko dantza ezberdinak filmatzea proposatu zuen orduan, haien kontserbazio eta ikerketarentzat zinema tresna egokia izan zitekeelakoan. Hitzez hitz, hau zioen Kongresuko ondorioetako batek: «(se propone) la impresión de cintas cinematográficas en las que se consignen los bailes existentes en varias regiones del País, por el interés que ofrece su estudio y conservación»²⁷.

Asmo haren berri izatean, berehala, filmatutako irudiak eskaini zizkion Ynchaustik Eusko Ikaskuntzari. Haren barne buletinak dioenez²⁸, 1923ko irailaren 21ko Batzar Iraunkorrean, Manuel Ynchausti bazkideak zenbait film oparitzeko asmoa agertu zuela jakinarazi zen, eta hori ederki ezkontzen zela erakundearen aspaldiko proiektu gauzatu gabearekin. Ynchaustik berak, hurrengo Batzar Iraun-

26. YNCHAUSTI, Antonio Maria. Elkarriketa pertsonala. 2015-08-24

27. ZZAA, I Congreso de Estudios Vascos: Oñate 1918. Bajo el patrocinio de las Diputaciones Vascas, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1919; 999 orr.


28. “Acción de la Sociedad”. *Eusko Ikaskuntza'ren deia-Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos*. 1923, 20. zkia.

korrean filmak erakustea proposatu zien batzarkideei, eta aski kalitate zutela iritziz gero, publikoki aurkeztea Eusko Ikaskuntzaren zigiluarekin²⁹.

Ynchaustik idatzitako gutunetan etengabe agertzen denez, sekulako ekin-zaitelza eta ilusioarekin jardun zuen lan honetan, eta Eusko Ikaskuntzak erakutsitako interesak, filmatzen jarraitza animatu zuen; euskal kausa laguntzeko helburu bakararekin. Bere hitzetan horixe baitzuen asmoa: *“contribuir, aunque sea de una manera tan insignificante, a la obra cultural de la Sociedad de Estudios Vascos, en beneficio del noble y querido País Vascongado”*³⁰.

Eusko Ikaskuntzarentzat ez zen batere negozio txarra, Ynchaustik berak burutu eta ordaintzen baitzuen guztia. Berak erosten zuen zeluloidea, berak filmatu, eta Madrilera Atlantida etxera berak igortzen zituen postaz negatiboak, tituluak ere han inprimatuaraziz. Ondoren, laborategietatik zeluloidea muntatu gabe itzultzen zioten, eta berak egiten zuen muntaia, etxean. Tituluetako irudiak berriz, marrazkilari bilbotar bati eginarazten zizkion, *“de puro carácter vasco”*³¹ izan behar baitzuten.

Erregulariki kontseilua edo laguntza eskatzen zien Eusko Ikaskuntzako kide esanguratsuei, batez ere, filmen edukia egoki tratatzeko arloetan. Bere gutunketan azaltzen denagatik, haren kolaboratzaile eta kontseilari estuenetakoa, Aita Donostia izan zen, dudarik gabe. Seguru aski, lehenagotik ere adiskidantza izanzen zuen harekin, Lekarozeko monastegiarekin harremana baitzuen aspalditik, Filipinetan ezagututako fraideen eraginez. Manuelen seme Antonio María de Ynchaustiren hitzetan; *“Ayudaba muchísimo a la Iglesia y tenía muchas amistades entre los Capuchinos que estaban en Filipinas. Esos Misioneros le presentaron a sus colegas en Euskadi y fueron ellos que le aconsejaron”*³². Aita Donostiak, hainbat filmaketatan lagundu zion, eta filmak han eta hemen presentatzeko garaian, presente egon zen zenbait aldiz. *“Gran parte de las danzas han sido recogidas con la cooperación del P. Donosti, bien haya sido bajo su inmediata dirección, o simplemente en algunos casos siguiendo sus indicaciones. Pero siempre siguiendo su orientación”* idatzi zien Angel Apraiz eta Julio Urquijori Ynchaustik, 1928ko gutun batean³³.



Filmetako baten intertitulua

29. Eusko Ikaskuntza. Manuel de Ynchaustiri igorritako gutuna. 1923-09-21

30. YNCHAUSTI, Manuel. Julian Elorzari idatzitako gutuna. 1924-01-15

31. YNCHAUSTI, Manuel. Angel Apraizi idatzitako gutuna. 1923-12-11

32. Idem 27. nota.

33. YNCHAUSTI, Manuel. Eusko Ikaskuntzako zuzendaritzari idatzitako gutuna. 1928-06-01

Eusko Ikaskuntzako idazkari nagusi Angel Apraiz arabarrak ere interes handiz segitu zituen Ynchaustiren filmaketa lanak, eta Erronkari eta Zaraitzun egindako filmaketetan haren zizerone gisa jardun zuen. Bestalde, filmen titulu eta azalpen letreroak euskaraz emateko ardura, Gregorio Mujika idazlearen gain utzi zuen Ynchaustik³⁴. Aipagarria da haren aldeko hautua, *Pernando Amezketarra* liburu eza-gunaren egileak hizkera argi eta ulerterrazaren aldeko apustua egiten baitzuen, joera garbizaleagoen aldean. Bukatzeko, Jose de Agirre etnografo donostiarrak eta Fausto Arozena, erakundeko idazkariak eskainitako laguntza ere aitortu zuen Ynchaustik gutun batean³⁵, bere kolaboratzaile taldearen barnean sartuz.

Filmien ekoizpenaren historia berreraiki ahal izateko, apenas dagoen dokumentaziorik, Eusko Ikaskuntzaren artxiboetan gordetzen diren hamazazpi gutunak eta erakundearen barne buletinak salbu. Horrek ematen digun ziurgabetasunarekin beraz, baina haietatik ateratako informazioan oinarriturik, prozesuaren kronologia ondokoa izan zela zirriborra genezake:

- 1923ko abuztuan, opor denboran Madriletik Euskal Herrira etorrita, Ynchaustik Zumarragako bestak eta Baztaneko mutil dantzak filmatu zituen Aita Donostiaren laguntzaz, azken hauek Lekarozen (han bizi izana zen fraide kaputxinoa) eta Arizkunen. Irailean berriz, Donostian izandako euskal kutsuko zenbait gertakari filmatu zituen, bere kasa, zaletasun hutsez. Batetik, urtero bezala hirian ospatu ziren estropadak, hots, Kontxako Bandera famatua. Eta bestetik, urte hartan, Amarako zabalgunean Aldundiak antolatutako “*Abelgori-Nekazaritza-Egazti-Baratz-Lore Erakusketa*”-ren baitako zenbait jardura. *Argia* aldizkariaren iradokizun batetik sortu zen erakusketa hura³⁶, eta astebetez, abeltzantza eta nekazaritza gaien leiho izateaz aparte, *euskal jaiak* ospatu ziren bertan; dantza emanaldiak, herri kirol lehiaketak eta abar. Ikusleentatik, haietako zenbait filmatu zituen Ynchaustik; eta baita, *Argia* aldizkariak bere stand-ean eraikitako euskal sukaldearen errepresentazioa ere. Ondoren, Madrilera itzuli zen, zuzenbide ikasketekin jarraitzeko.
- Hurrengo hilabeteetan, Eusko Ikaskuntzak filmaketetan interesa izan zezakeela jabeturik, material guztia oparitzea deliberatu zuen, haiek zabalpena eman diezaioten. Interes honek, lanean jarraitzera animatu zuen, eta hala, urte bereko abenduan, Euskal Herrira egindako bisitan, beste zenbait euskal gai filmatzeko asmoa agertu zion Fausto Arozenari, gutun batean: “*Los días que pase allí quisiera aprovecharlos para impresionar algunos asuntos más del país. Se le ocurre a usted algún plan? Hoy escribo al sr. Iriondo preguntando si se podría hacer algo en asuntos de pesca. Temo sea difícil por el tiempo*”³⁷. Ez dakigu nor ote zen Iriondo jaun hura, ez eta ere film berri haiek burutu ote zituen.

34. YNCHAUSTI, Manuel. Fausto Arozenari idatzitako gutuna. 1925-03-20

35. Idem 30. nota.

36. “Donostiko Erakusketa ederá. Argia’ren asmoak bete dira”. ARGIA. 1923-09-23

37. YNCHAUSTI, Manuel. Fausto Arozenari idatzitako gutuna. 1923-12-06

- 1924an, udako oporrak hurbildu ahala, Ynchausti Euskal Herrira etortzean eginen zituen filmaketa berriak prestatzen hasi zen berriro. Uztaillean, Iza-ban *Hiru behien zerga* ohitura ezaguna filmatzeko asmoa agertu zion Angel Apraizi gutun bidez, eta bidaia aprobetxatuz, Otsagi eta Erronkarin “argazki” batzuk ateratzeko aprobetxatuko zuela³⁸. Eusko Ikaskuntzako idazkari nagusiak, gutunetik ondorioztatzen denez, harekin joateko interesa agertua zuen aurreko urtean, eta horregatik, Nafarroako ekialdean hiru eguneko “eskursioa” elkarrekin egitea proposatzen zion Ynchaustik, bide batez, Otsagiko dantzariak kontaktatzeko eskatuz. Ilusio handiz, haren udako asmoen berri ere ematen zuen gutunean: “*Este año voy muy animado a impresionar algunos cientos de metros de películas y exclusivamente de asuntos vascos*”³⁹. Ez dakigu urte hartan zenbat filmatu ote zuen azkenean. Hasteko, Erronkari eta Otsagiko irudi eta dantzak bai, baina *Hiru behien zerga* agertzen duen filmarik ez da kontserbatzen, Euskadiko Filategian bederen. Bestalde, iraileko beste gutun batean, Leitzara joan eta bertan *Ingurutxo* dantza filmatzeko bere asmoa agertu zuen Ynchaustik⁴⁰, baina irudi horien arrastorik ez da, guk dakigula.
- Zuzunegiuren arabera, Euskadiko Filategian kontserbatzen den Zumarragako jaien filma hurrengo urtean filmatua izan zen, 1925ean, baina filmeko tituluetan, 1923an izan zela agertzen da.
- 1926an karrera bukatu eta Ana Maria Larraurirekin esposatuta, Ynchausti Filipinetara itzuli zen denbora batez, beraz kasik segur da ez zuela filmerik egin.
- 1927an, atzera ere Europan egonik, filmatzen segitzeko asmoa zuela agertu zion gutun bidez Frantisek Pospisil⁴¹ etnografo txekiarrari, eta aurrerantzean, filmekin batera bertan erakusten zena azalduko zuten folleto esplikatioak publikatzeko proiektua zuela ere bai⁴².
- 1928an filmaketa berriak egin zituen. Berrizeko Ezpata-dantza eta Donostiako Corpus-eko prozesioa ordukoak dira, eta itxura guztien arabera, baita konstituzio plazan hartutako Agintari dantzaren irudiak ere, *Euskaleriaren Ekandua* I izeneko filmean muntatuta daudenak.

Horien ondotik, Ynchausti gelditu egin zela lirudike. Eusko Ikaskuntzaren artxiboetan ez da gaiari buruzko haren gutun gehiagorik gordetzen, eta 80ko hamarkadan gaia tratatu zuten historialariek ere, 1928an finkatzen dute *Eusko Ikusgayak*

38. YNCHAUSTI, Manuel. Angel Apraizi idatzitako gutuna. 1924-07-03

39. Idem

40. YNCHAUSTI, Manuel. Angel Apraizi idatzitako gutuna. 1924-09-01

41. Pospisil, Moraviako museoko etnografia saileko zuzendaria zen, eta Ezpata-dantzeekin liluratuta, Europa osoa zeharkatu zuen, berauek ikertu eta filmatzen. Euskal Herrian ere izan zen, eta bertako dantza ugari filmatu zituen 1927. urtean. Haren inguruko informazio gehiago jakiteko, ikus: <https://dantzan.eus/kidea/JFL/frantisek-pospisil>

42. YNCHAUSTI, Manuel. Frantisek Pospisili idatzitako gutuna. 1927-08-24

sailaren bukaera. Alta, Unsainen arabera, 1931an Lasarteko inauteriak filmatu zituen, baina film hau desagertu egin zen⁴³.

4.3. Corpusaren katalogazio saiakera baterantz

Dauzkagun datu urriekin, zaila da 20ko hamarkadan zehar Manuel de Ynchaustik filmatutako zinten kopuru zehatza jakitea. Izan ere, Eusko Ikaskuntzaren artxiboe-tan ez da kontabilizatuta agertzen eta ez dugu inon idatzia aurkitu 80ko hamarkadan Euskadiko Filategira zenbat eraman zituzten. Gainera, Miren de Ynchausti alabak baieztatu digunez, Uztaritzeko Intxausti-Baitan oraindik ere material zine-matografiko ugari gordetzen da⁴⁴.

Bestalde, gaiaz diharduten erreferentzia bibliografiko eta hemerografikoetan, bederen hiru modu ezberdinetan sailkatu eta zerrendatu izan dira Ynchaustik filmak, eta haietako bat ere ez dator bat Euskadiko Filategian ikus daitekeen sailkapenarekin.

Aurkitu dugun lehen sailkapena, garaiko prentsan ageri da. Filmak 1928ko irailean Donostiako Kasinoan proiektatu zirelarik, honela iragartzen zituzten *La Voz de Guipuzcoa* egunkarian⁴⁵:

- Usos y costumbres.
- Juegos y deportes
- Danzas guipuzcoanas y navarras.
- Concurso de aureskularis y danzas del País Vasco.
- Danzas peculiares de Santesteban (Navarra).
- Danzas de Ochagavía y varios tipos de Salazar y Roncal.
- Procesión del Corpus de San Sebastian el día 7 de julio de 1928.

Unsain eta Zunzunegui, aldiz, bestela sailkatu zituzten 1985ean publikatutako beren bi obretan:

- EUSKO DANTZAK. Bailes vascos. Dances basques. 1, (1923).
- EUSKO DANTZAK. Bailes vascos. Dances basques. 2
- EUSKALERIAREN EKANDUAK. Usos y costumbres. Mœurs du Pays
- EUSKALERIAREN EKANDUAK. Usos y costumbres. Mœurs du Pays (1924)
- EUSKOTAR JATORAK «ARGIAK» EKARITAKOAK. Tipos de vascos presentados por «Argia». Tipos basques présentés par «Argia»
- JOLASKETAK. Juegos y deportes. Sports et jeux.
- EUSKALERIKO NEKAZARITZA ETA ABELGORIEN ERAKUSKETA. Exposición de Ganadería y Horticultura en San Sebastián. Exposition de Bétail et d'Agriculture a Saint Sebastien (17-23 de septiembre de 1923).
- Sin título (danzas vascas).

43. Idem 1. nota

44. Idem 21. nota

45. "La sesión cinematográfica de hoy". *LA VOZ DE GUIPUZCOA*, 1928-07-19. 10. orr

Oso bestela, Juan Mari Beltranek honela zerrendatzen ditu Ynchaustiren *Eusko Ikusgayak* saileko filmak Oiartzuneko Soinuenea zentroan.

- Getaria; Getariako portua; emakumeak sarea egiten; soroan belarrak egiten; emakumeak ura garraiatzen; esku pelotan jolasten; 0'08
- Eusko dantzak, Donostiako irudiak; gipuzkoar aurrekulariak; 0'17
- Atharratzeko dantzariak; mutxikoak; satan dantza; gabota; branle jaustia; ibiltea; godaleta dantza; 0'20
- Haria egiten; 0' 25
- Estropadak; 0'28
- Lazkano ingunea 146 kiloko harria jasotzen; mokonoa 120 kiloko biribila jasotzen; 0'33
- Aizkolariak; 0'34
- Euskal herriko nekazaritza eta abelgorrien erakusketa; 0'36
- Donostian ' la salve'; 0'42
- Zumarragako jaiak; kontrapasa; soka dantza; 0'45
- Arizkun; 0'47
- Iزابako elizatik ateratzen; bertako jantziak; lutoa; 0'55

Horiek hola, ordena eta sailkapen originala zein litzatekeen jakin ezinik, Euskadiko Filmetegian ikus daitezkeenak, bertan gordetzen diren ordenean sailkatuko ditugu hemen. Ez Filmetegiko orden honek zentzu gehiago duelakoan (ez da kronologia errespetatzen, eta zaila zaigu beste ze irizpideren arabera antolatuak dauden asmatzea) baizik eta, filmen katalogazio baterako, erabilgarriena, Filmetegian ikus daitezkeen ordenean azaltzea delakoan.

Gure zenbaketaren arabera, hamar film labur kontserbatzen dira Filmetegian, orotara, 63 minutuko iraupeneko korpus filmikoa osatuz.

Eusko Ikusgayak					
Urtea	Kredituak	Laburpena	Lekuak	Protagonistak	63:00:00 Iraupena
1923	Titulua: "Eusko Dantzak 2" Bukaera: "Azken"	Donostiako bistak. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Argia aldizkariaren ekimenez antolatutako "Abelgori-Nekazaritza-Egazti-Baratz-Lore Erakusketa"-ren baitako dantza emanaldiak: Aurrekulariak, Xiberoko dantzak, Trikitixa dantzak	Donostia, bazter ezberdinak Atotxako erakusketa tokia	B. Elgoyhenen Atharratzeko dantzari taldea.	06:58:00
1923	Titulua: "Euskotar jatorak, Argia'k ekaritakoak"	Sukalde batean, bi gazte, euskal ohitura zenbait antzeztzen. Irutea, besteak beste.	Donostia, Atotxako erakusketa. ARGIA aldizkariaren standak.	"Lizaralde'tar Lukene eta Maistegi'tar Jon".	03:51:00
1923	Titulua: "Jolasketak" Bukaera: "Azken"	Estropadak Harri jasotzaileak Aizkolariak	Donostia, Atotxako erakusketa tokia.	Orio, Getaria, Pasaia eta Donostiako traineruak. Asturiasko printzea eta infanteak. Lazkano eta Mokoroa harri-jasotzaileak. Astigarraga eta Kerexeta aizkolariak.	07:09:00

Eusko Ikusgayak					
Urtea	Kredituak	Laburpena	Lekuak	Protagonistak	63:00:00 Iraupena
1923	Titulua: "Euskaleriko Nekazaritza ta abelgorien erakusketa. 1923'ko iraila'ren 16tik 23ra bitartean" Bukaera: "Azken"	Abereen desfilea: Idiak, behorrak, zaldiak.	Donostia, Atotxako erakusketa tokia.	Victoria Eugenia erregina, Julian Elortza Diputazioko lehendakaria.	05:18:00
1928	- Bukaera: "Fin"	Corpus Christi prozesioa, ezpatadantza eta ospakizuna.	Donostia, Santa Maria eliza ataria	Julian Elortza diputazioko lehendakaria. Isidro Ansorena, Secundino Martinez de Lezea, Julian Unanue eta Luis Maria Castañeda txistulariak, Pujana, dantzarien zuzendaria.	03:30:00
1923	Titulua: "Eusko Dantzak 1" Bukaera: "Azken"	Zumarragako Ezpata-dantza. Baztaneko bistak eta mutil dantzak.	Zumarraga Baztan: Arizkun eta Lekaroz	Baztaneko txistulariak, Antonio eta Maurizio Elizalde	09:38:00
1924	Titulua: "Euskaleria'ren ekandua 2"	Izabako bistak. Herritarrek erronkariar jantzi tradizionalekin jantzitza. Emazte zaharra ardazketan. Otsagiko dantzak.	Izaba, Uztartotze eta Otsagi.	-	09:17:00

Filmen sailkapena eginik, guztiek komunean dituzten antzekotasunak ikus ditzakegu, bai mamiari eta bai azalari dagokionez. Nolabait esateko, corpus filmi-koak dituen ezaugarriak.

Hasteko eta behin, formaren aldetik, esana dugu lehenago ere, film erabat amateurak direla. Filmatzen justu justu dakien zinemazale batek ahal bezala hartuak dira, pretentsio artistiko eta narratiborik gabe. Zentzu horretan, trakets samarrak gertatzen dira, baita garaian Euskal Herrian filmatutako beste film batzuen aldean ere (Euskadiko Filmategian ikus daitezkeenak, urrunago joan gabe). Ynchaustik ez zuen deus ikustekorik zinema munduarekin; eta bere interesa filmatzen ari zen errealtatean zentratzen zen, filmatzearen ekintzan baino gehiago.

Gehien gehienetan, plano orokorra erabiltzen da. Muntaketaren zentzua oso txiki eta oinarritzkoa dauka, eta horregatik, filmen garapena ere oso mugatua da, ia beti. Gutxitan kontatzen da istorio bat, eta hala denean, intertituluen bitartez esplikatzen da kontakizunaren mugimendua. Lengoaia zinematografikoaren erabilpen murrizt horrek pentsarazten digu, momentu askotan, argazkiak hartzen ari balitz bezala filmatzen zuela Ynchaustik. Argazkigintzatik hurbilago daudela bere irudiak, filmagintzatik baino. Lumière anaien garaiko dokumentu filmikoetatik, Flaherty-ren dokumentalgintzatik baino.

Izatera hau areagotu egiten da, kamara aurrean agertzen diren pertsonaiek hartzen duten jarrerarekin: erretratu bat eginen baliote bezala posatzen dute maiz, mugitu gabe geldituz eta kamerara begiratzuz. Portuan josten dauden saregileak, esaterako, dudarik gabe okasiorako jantzita daude, zapata eta guzti, normalki lana oinutsik egiten zutelarik. Ildo horretatik, badira zenbait irudi, argiki “prestatuak” izan direnak, hots, kamerarako erreprezentatuak. Horietan, eszenaratze bat dagoen aldetik, landuagoa da irudia, eta txukunago filmatuak daude. Beste zenbait (gehienak) orde, zuzeneko filmaketak dira, errealtateko gertakizunen hartze soilak. Kasu horietan, ahal bezala, saihetsean eta distantzia handi samarrean kokatu ohi da kamara, ikusle bat gehiago balitz bezala. Ynchaustik ez du perspektiba on bat bilatzen, irudien kalterako izanik ere.

Filmen mamia aldiz, azala baino askoz ere aberatsagoa da. Filmatutako gaien eta lekuen ugaritasun eta aniztasuna harrigarria da, Ynchaustik zituen baldintza tekniko eskasak kontuan harturik. Zentzu horretan, gutun batean berak erabiltzen zituen hitzak baliatuz, “*asuntos vascos*”⁴⁶ izendapenaren barnean sartzen



Alarguntsa kamerara begira, argazkia eginen baliote bezala

46. Idem 34. nota. “Asuntos vascos” espresio berdina, 1923ko beste gutun batean ere erabiltzen du filmak deskribatzeko: “(trabajos sobre “asuntos vascos” que tomé con tanto cariño e interés”. YNCHAUSTI, Manuel. Angel Apraizi idatzitako gutuna. 1923-09-17

ahal zen zernahi kultur adierazpide interesatu zitzaion. Gaika sailkatuz, honakoak ditugu filmetan ageri diren “euskal gaiok”.

- Dantza tradizionalak.
- Herri kirolak
- Euskal tipoak (euskaldunen fisionomiaren potretak, eta jantziteria)
- Nekazari eta arrantza bizibideak.
- Erljio erritoak.

Dantzak dira maizenik agertzen direnak. Dela beren jatorrizko kontestuan edo eta lehiaketetan, Durangaldeko, Otsagiko, Baztaneko, Zumarragako, Xiberoko eta Doneztebeko dantzak ikus ditzakegu, bai eta ere, aureskua eta fandangoa. Zentzu horretan, dantza arloan Euskal Herrian den ugaritasun eta aniztasunaren erakusle paregabea dira filmak. Lehen kolpean hainbesteko presentzia harrigarri gerta badaiteke ere, beste tradizio batzuen aldean dantzei lehentasuna ematea, segurki, garaia eta filmen helburuari lotua da, hots, galtzearen kultura baten kontserbazioari. Dantzaren kasuan, bereziki handia da zinemak argazkilaritzaren aldean dakarren aitzinamendua. Edozein jantzi, lan ohitura edo tradizio mugimenduan ikustea hobe da, dudarik gabe; baina dantza baten kasuan, irudi geldia edo mugimendu osoa erakustea, dena aldatzen du.

Dantzez gain, filmetan gehien agertzen diren kultur adierazpideak herri kirolak dira. Hemen ere aniztasuna azpimarratzen da: aizkolariak, harri jasotzaileak, pilotariak eta arraunlariak aurkezten dizkigu Ynchaustik, film ezberdinetan. Hirugarrenik, aipagarria da, hainbat eszenetan “euskal tipoak” (*tipos vascos/types basques*)⁴⁷ filmatzeko interesa. Jantzi tradizional bezititutako euskal gizon emakumeen hartze hutsak dira, erretratu kasik fotografikoak iduri dutenak. Jantziteriarekiko interes etnografikoaz gain, kasu batzuetan, balirudike euskaldunen fisionomiari ere erreparatu nahi zaiola irudi hauekin; euskaldunen arraza ezaugarriei, hots. Ez da ahanztia behar, “*raza pirenaica occidental*” delakoarekin bueltara, garai hartan, ikerketa arrazialek pisu nabaria zutela antropologian, eta euskaldunak lehen mailako ikerketa objektua zirela, bai kanpotik etorritako zientifikoentzat, bai bertakoentzat. Gutxienez behin *Eusko Ikusgayak* bere hitzaldi baten ilustragarri erabili zituen Telesforo Aranzadi, esaterako, euskaldunak historiaurretik Euskal Herrian egon zirela ondorioztatu zuen 1922an, haren ezaugarri fisikoak aztertuz. “*No cabe admitir que la combinación de rasgos propios de los vascos sea una combinación de tipos*”⁴⁸.

Azkenik, arrantza eta laborantza bizimoduari lotutako lanek ere presentzia dute filmetan. Ynchaustik gutun batean dioenez, euskal gaiak lotuta dauden “*labores de pastores y pescadores*”⁴⁹ delakoak. Hala, Donostiako Erakusketako abere feriaz gain, *in situ* filmatuak dira, besteak beste, udazkeneko belar mozteak, eta

47. Adierazpide hau erabiltzen da filmetako intertituluetan.

48. Idem 9. nota.

49. Idem 31. nota

kaian lanean ari diren emakume saregileen jarduna. Haiekin batera, prozesioak, eta mendi eta itsasaldeko paisaiek osatzen dute filmetako gaitegi nagusia.

Garaian zinemagintza mutua izateak, seguru aski, gaien mugatzea ekarriko zuen. Pentsatzekoa da, soinua hartzeko aukera izan balu, Ynchaustik euskarari eta kantu eta musikei leku zabala eginen ziela, laguntzaile nor izan zituen kontuan izanik: Aita Donostia eta Gregorio Mujika, besteak beste. Nolanahi dela, lehenago esana dugun bezala, erabiltzen diren kartel esplikatioetan, euskara da hizkuntza zentrala. Frantses eta espainolezko itzulpenak ere agertzen badira ere, filmak “euskarazkoak” izatea nahi izan zuen, beraz, Ynchaustik.

4.4. Zabalpena

Ynchaustiren lanek ez zuten izan ez publizitate iragarkirik, ez estreinaldi handirik, ez eta zinemetako karteldegietan lekurik. Begi bistako arrazoiengatik, *Eusko Ikusgayak* sailaren zabalpena, oso ezberdina izan zen, filmen ohiko hedapen moduetatik. Haien izaera amateurraz gain, esana dugu lehenago, ez zutela zinema aretoetan masiboki zabaltzeko intentziorik, kulturaren kontserbazioa eta sustapena zutela helburu. Gainera, publikoak, istorioak nahi zituen orduan ere, entretenimendua, eta Ynchaustik berak, argi zuen bere filmak ez zirela ikuslego zabal batentzat, baizik eta euskaltzale gutxi batzuentzat. Horregatik, hasieratik, gehiago irudikatzen zituen konferentzia eta euskal ekitaldi berezien ilustrazio edo laguntzaile gisa, ikus-kizun buruaski bezala baino.

Nolanahi dela, hainbat aldiz proiektatu ziren filmak 20ko hamarkadan zehar. Esana dugun bezala, 1923ko udan lehen filmaketak egin ostean, Ynchaustik Eusko Ikaskuntzako agintariei pelikulak eskaini zizkien, onak irudituz gero, erakundearen zigilupean publikoan zabal zituzten. Hala, 1923ko abenduaren 17an, espresuki Madriletik etorri eta, proiektorea ere berak ekarrita, Batzar Iraunkorreko kideen aurrean proiektatu zituen. Filmek harrera ona izan zutela dirudi, biharamunean bertan, Telesforo Aranzadik Ateneo Guipuzcoano-n egin zuen hitzaldia ilustratzeko erabili baitzituzten, eta egun bat geroago, Instituto General y Técnico de Guipuzcoa delakoan, Obermeier jaunak emandako konferentzian.

1924an, udan egindako filmaketa berrien ondotik, irailaren 6ko Batzar Iraunkorrean berriro erakutsi zituen Inchaustik filmak⁵⁰. Haien oniritzia jasota, Eusko Ikaskuntzaren asanblada orokorraren aitzinean pasa ziren gero, Gasteizeko Arte eta Ofizio eskolan ospatutako euskal festan. Angel Apraizen konferentzia, txistulariak, Peñafloidako Kondearen *El borracho burlado* operaren zati bat eta *Eusko Ikusgayak* izan ziren gaualdiko programa⁵¹. Bestalde, Aita Donosti eta Edmond Blazy elizgizonak, filmen kopia bat eraman zuten Uruguai, Chile eta Argentinara urte hartan egin zuten bidaian. Uztaritzeko seminarioa eraikitzeke diru bila joanak

50. YNCHAUSTI, Manuel. Angel Apraizi idatzitako gutuna. 1924-09-01

51. “Acción de la Sociedad”. *Eusko Ikaskuntza'ren deia-Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos*. 1924, 23. zkia.

ziren, eta Eusko Ikaskuntzako idazkari Jose Agirreren partez, Montevideoko Euskal Erria elkartearen utzi zituzten Ynchaustiren filmak⁵².

1925ean filmak nonbait proiektatu izanaren arrastorik ez dugu inon aurkitu, eta 1926an berriz, Manilatik igorritako gutun batean ageri denez, Ynchaustik berearekin eraman zituen Filipinetara⁵³. Ez dakigu han aurkeztu ote zituen, baina edozelan ere, Eusko Ikaskuntzari oparitu eta haren artxiboetan utzi arren, egileak filmekiko nolabaiteko jabetza kontserbatzen zuela adierazten digu honek.

1927an, badakigu Eusko Ikusgayak Madrilen erakutsi zirela, Ikasketa Historikoen Zentroan, Eusko Ikaskuntzak atzeritarrentzako antolatutako kurtso batean, *“con resultado muy satisfactorio para nosotros”*, erakundearen buletinak dioenez⁵⁴. Halaber, Frantisek Pospisil etnografo txekiarra, Euskal Herrira egindako bidaiaren ondotik, nazioartean burutuko zituen konferentzia batzuetan filmak proiektatzeko interesa agertu zion Ynchaustiri eta honek erantzun, kopia bakarra zegoela eta beraz, utzi egingo zizkiotela, itzultzeko baldintzarekin⁵⁵. Litekeena da, Pospisilek Amsterdameko kongresuan Europako Ezpata Dantzei buruz eman zuen konferentzia baterako baliatu nahi izatea Eusko Ikusgayak, bertan berak Euskal Herrian hartutako zenbait dantzaren filmaketak erakutsi baitzituen. Konferentzia haren transkribaketa Norbert Tauerren paperetan gordetzen da⁵⁶, baina aldiz, hari so, ez dirudi azkenean Ynchaustiren filmak erabili zituenik.

1928an, Julio Urquijo eta Angel Apraizek, Eusko Ikaskuntzaren uda-ikastaroetan proiektatzeko baimena eskatu zioten Ynchaustiri. Pozik eman zuen baiezkoa, eta filmak Aita Donostiaren konferentzia batekin laguntzea gomendatu zien, gaiaren jakintzaz gain, filmak ondo ezagutzen zituelako⁵⁷. Uda ikastaroetatik idatzitako euskarazko kronika batean, modu politean egin zuten erreferentzia Etarbe kronikariak Aita Donostiaren hitzaldian ikusitako filmei: *“Aita Donosti’k Eusko Eri-kuntzaz itzegingo du, eun zurian adibide egokiak erakutsiaz”*⁵⁸. Urte berean, Donostiako Euskal Jaietan ere pasa ziren Eusko Ikusgayak, Kasinoan egindako emanaldi batean. Manuel Ynchausti eta Eusko Ikaskuntza aipatu gabe, La Voz de Guipuzcoa egunkariak halaxe iragarri zuen berria: *“Gran semana vasca: La sesión cinematográfica de hoy. Continúan celebrándose con gran animación los actos de la G. S. V. Hoy a las 7 se proyectarán en la Sala de Fiestas del Gran Casino un número interesante de películas vascas”*⁵⁹.

52. “Naskaldia”. *Eusko Ikaskuntza’ren deia-Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos*. 1924, 24. zkia.

53. YNCHAUSTI, Manuel. Fausto Arozenari idatzitako gutuna. 1926-07-01

54. “Acción de la Sociedad”. *Eusko Ikaskuntza’ren deia-Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos*. 1927, 34. zkia.

55. YNCHAUSTI, Manuel. Frantisek Pospisili idatzitako gutuna. 1927-08-24

56. SATRUSTEGI, Jose Maria. “Txekoslovakia itzuliaren berri eta ondoreak”. *Euskera*, 1982, XXVIII zkia (2. aldia), 269-275. orr

57. YNCHAUSTI, Manuel. Eusko Ikaskuntzako zuzendaritzari idatzitako gutuna. 1928-06-01

58. ETARBE, “Uda ikastaldiak”. *Eusko Ikaskuntza’ren deia-Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos*. 1928, 37. zkia.

59. Idem 45. nota.

Urtebete beranduago, Apraizek berriz ere filmen proiektzio bat antolatzeko baimena eskatuz idatzi zionean, Ynchaustik erantzun zion ez zuela merezi aldi guztiz bere baimenaren zain egotea: zabalpena izan zezaten eskaini zizkiola zintak Eusko Ikaskuntzari, eta beraz, nahi zuten guztietan proiektatu ahal zituztela. Gerotik, jakina da Apraizek berak, 1930an Bergaran ospatutako Eusko Ikaskuntzaren kongresuan behintzat erabili zituela, *“El arte popular en la vida vasca”* izeneko bere konferentzia laguntzeko⁶⁰. Ordutik aurrera, ez dugu aurkitu emanaldi gehiagoren erreferentziarik. Litekeena da horretan gelditzea; izan ere, jadanik Ynchaustiren lanak aski mugatuak baziren berez, seguru aski, urte haietan gertatutako zinema-soinudunaren sorrerak, sobera zaharkituak utziko zituen publikoan proiektatzeko.

Ondoko hamarkadetan filmak zertan izan ziren, zaila da jakiten. Printzipioz, Eusko Ikaskuntzaren artxiboetan gorde eta bertan gelditu ziren, baina 80ko hamarkadan Euskadiko Filategira iritsi zirelarik, 2.500 metro Ynchaustiren familiak eraman zituen, eta soilik 500 metro etorri ziren Eusko Ikaskuntzatik⁶¹. Ez da existitzen aferari buruzko dokumentaziorik, ez Eusko Ikaskuntzan ez eta Euskadiko Filategian ere, baina egileak film haiekiko zuen atxikimendua ezagututa, eta lehenago ere, 1926an, berarekin Filipinetara eraman zituela kontuan hartuta, pentsatzekoa da, 1936ko gerla lehertzean Donostiatik ihes egin zuenean, filmak errekupeatu eta erbestera eraman zituela. Haren seme-alaben lekukotzak ere, horixe adierazi digu. Miren de Ynchausti alabaren arabera, *“Film horiek gure etxean zeuden, Uztaritzen, Intxausti-Baitan. Hainbat aldiz ikusi genituen, aitarekin, oso politak ziren. Familiarentzat proiektatzen zituen. Nik ez dut gogoan inoiz etxetik sekula atera zirenik ez inork sekula eskatu zizkionik”*⁶². Antonio Maria Ynchausti seme nagusiak ere, etxean ezagutu zituen beti filmok, eta Eusko Ikaskuntzarekiko loturarik gabe: *“Esos films que yo sepa se quedaron en casa para la familia. Eso fue parte de nuestra educación y gracias a eso yo también apreció muchísimo nuestra cultura. Teníamos esos films y yo siendo el mayor me interesó muchísimo y es por eso que seguí los pasos de Aita”*⁶³.

Aitaren oinordekotza hartzeko nahi horretan, Antonio Maria Ynchaustik, hainbat film errodatu zituen 40ko hamarkadan euskal gaiei buruz, familia Estatu Batuetatik Ipar Euskal Herrira itzuli zenean. 1948an, esaterako, Eusko Ikaskuntzak Biarritzen antolatutako VII. Kongresua filmatu zuen, eta 1954an Baionan antolatutakoa; euskal kulturaren biziraupenarentzat garrantzi handikoak izan ziren hitzorduak, biak ala biak. Herrietako jaiak, pilota partidak, uso ihizia eta beste zenbait herri usaia ere hartu zituen Ynchausti gazteak, 16 mm-ko Bell & Howell kamera batekin. Filmaketa guzti horiek, muntatuketarik eta titulurik gabe daudenak, Yn-

60. Idem 1. nota

61. ARMAÑANZAS, Emi. “Cine vasco de los años 20 en el Certamen internacional de Cine de Bilbao”. *DEIA*. 1982-11-24

62. Idem 21. nota

63. YNCHAUSTI, Antonio Maria. Elkarriketa pertsonala. 2015-08-28

chausti familiaren etxean kontserbatzen dira, eta gutxi batzuk baino ez dira ezagunak⁶⁴. Manuel de Ynchaustiren lanak, beraz, erbeste denboran izan zuen zabalpenik, haren semeak hartutako lekukoaren bidez.

Aitaren filmetara itzuliz, 1961an hil zenez geroztik, etxeko ganbaran gordirik gelditu ziren, frankismoa bukatu arte. 80ko hamarkada hastapenean, familiako laguna zen Pedro de la Sota zinemagilea, gaiaz interesatu, eta filmak sortu berria zen Euskadiko Filmategian uzteko gomendatu zien Ynchaustiren seme-alabei⁶⁵. Orduan, nolabaiteko bigarren bizitza bat eduki zuen *Eusko Ikusgayak* sailak. 1982an, ZINEBI Bilboko Zine Jaialdian, Filmategiak berreskuratu-tako beste altxor batzuekin batera. Prentsak honela aurkeztu zituen Ynchaustiren lanak:

A juicio de Pedro Aldazabal, de todo lo filmado, que tiene calidad, destacaría por su interés todo lo referente a danzas, trajes y su entorno en Navarra –Isaba, Baztan, Otxagavia– porque las escenas filmadas por Inchausti son de las primeras rodadas allí que se conocen. Otro aspecto interesante y novedoso que resalta el presidente de la Filmoteca Vasca es que Manuel Inchausti era consciente de lo documental de su material, llegando a considerarlo noticiario. De hecho, en la película aparecen las palabras “Eusko Ikusgaiak”, “Noticiarios vascos”, por otra parte titulaba cada tema en euskera, castellano y francés.

El material que se proyectará en este certamen procede de una seleccion de 2.000 metros de película que la familia tenía y de otros 500 de la Sociedad de Estudios Vascos. El negativo de este material quedará en la Filmoteca Vasca –que lo ha pasado de 16 imágenes por segundo a 24, trabajo costosísimo– y dos copias, una para la familia Inchausti, y otra para la mencionada sociedad⁶⁶.

Hiru urte beranduago, Unsain eta Zunzuneguiaren euskal zinemaren inguruko monografiatan, aitzindari papera aitortu zioten Ynchaustiri, eta geroztik publikatu diren lan guztietan, halaxe agertu izan da beti. Filmak ordea, bigarrenez ahaztuta gelditu ziren, oraingoan Euskadiko Filmategian bertan, eta adituen zirkulu murritzetatik haratago, apenas ezagutzen dira. Hala ere, literatura etnografikoan zenbait aldiz aipatuak izan dira; hala nola, Sabin Bikandi txistulari eta ikertzailearen tesi-⁶⁷, edo Rosa Villafranca eta Angel Aldaiak Otsagiko kulturaz egindako ikerketetan. Azken hauek beren lanetan nabarmendu zuten, Ynchaustiren filmei esker, dantzek ordutik hona izandako aldaketa zenbait identifikatu ahal izan dituzte: “*Hay una variante en el baile con respecto al actual: en la película de 1923, los golpes al suelo sólo se hacen girando en un sentido. En la actualidad, los danzantes realizan otro giro, en sentido contrario*”⁶⁸. Unsainek dioenez, Juan Antonio Urbeltz

64. Ibidem

65. Idem 21. nota

66. Idem 62. nota

67. BIKANDI, Sabin. *Alejandro Aldekoa: Master of Pipe and Tabor Dance Music in the Basque Country*, Reno: Center for Basque Studies - University of Nevada, 2009

68. VILLAFRANCA, Rosa eta ALDAIA, Angel M. *Danzas De Ochagavia. 300 Años De Historia*, Iruñea: Editorial Mintzoa, 1996; 227 orr.

folklorista ere txundituta gelditu zen Ynchaustiren filmekin, eta haien inguruko lan bat prestatzen hasi zen⁶⁹.

Bestalde, tarteka marteka, dokumental eta filmetan artxiboko irudi gisa bererrerabili izan dira *Eusko Ikusgayak*-eko irudi solteak; Jose Julian Bakedano eta Pedro de la Sotak zuzenduriko *Sabino Arana* (1980) luzemetraian, kasurako.

Gaur egun, Ynchaustiren lanak ikusteko aukera bakarra, Euskadiko Filma-tegira bertara joatea da.

5. Tradizio zinematografiko baten lehen katebegia

Bere amateurtasunak ekarritako ajeak gora behera, *Eusko Ikusgayak* saileko filmak euskal zinemagintzaren aitzindari argienetakoa dira. Hasteko eta behin, euskal kultura tradizionalaren inguruan kontserbatzen diren filmetan lehenetariakoak direlako. Ion Lopez Barrena, Euskadiko Filmatetikiko zuzendari kontserbatzailearen esanetan, “lehen euskal notiziariotzat”⁷⁰ har litezke. Carlos Roldan Larreta historialaria berriz, urrunago doa, eta “euskal zinema dokumental garaikidearen aurrekari garde-nena”⁷¹ direla idatzi izan du.

Hainbestearainoko kalifikaziotan sartu gabe, argi dago garrantzia historiko handiko lanak direla, beren testuinguruaren eta sortze-baldintzen ezaugarriak dituztenak. Zentzu horretan, etnografia hutsaz haratago doaz, Euskal Herriaren erre-presentazioari dagokionez. Bob Stoneren ustez, desagertzen ari den kultura bat erakutsi nahi dio Ynchaustik ikusleari haien bidez:

The first Congress of Basque Studies in Oñate in 1918, wich proposed the filming of traditional Basque dances and folklore as a means of preserving a national identity that was being actively suppressed. Manuel Inchausti, a typically enterprising individual, duly set about a series of documentaries entitled *Eusko Ikusgayak* (1923) that made up in ethnographic value what they lacked in the way of technique. These and other short films communicated a sense of disappearing nation-hood at a time of economic hardship⁷².

Santiago De Pablok, berriz, pauso bat gehiago emanek, nortasun nazionala sustatzeko ahalegin abertzaleen baten baitan kokatzen ditu:

(...) interés de los miembros del PNV en emplear todos los medios a su alcance, incluido el cine, para promover la identidad nacional. No obstante, enseguida quedó claro que era preferible utilizar el cine documental, más sencillo desde el punto de vista de la producción y que permitía elaborar un discurso más preciso en torno a la identidad nacional. Significativamente, la primera iniciativa de la época muda en el terreno del documental cultural y etnográfico vasco estuvo vinculada a un dirigente nacionalista, Manuel Ynchausti, que

69. Idem 1. nota.

70. BELASTEGI, Nagore. «La memoria de un pueblo en 35 mm». *Gara*, 2013-05-23

71. ROLDAN LARRETA, Carlos. “Euskal zinematografia: zinemaren hasiera Euskal Herrian” in *Auñamendi Entziklopedia*; 2010. Sarean: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee150011/137091>; Azken kontsulta: 2015-12-31

72. STONE, Rob. *Spanish Cinema*, New York: Routledge, 2002.

a partir de 23 realizó la serie Eusko Ikusgayak. De este modo se estaba construyendo una imagen marca del País Vasco, vinculada a una visión romantica del mundo rural tradicional. No obstante, esta visión no era exclusiva del nacionalismo vasco⁷³.

Zunzuneguik aipatutako tradizio zinematografikoaz ari da, azken batean, De Pablo. Zinemagintzaren hastapenetik euskal zinema modernoraino luzatzen dena, eta etnografian oinarritutako ikuspegi erromantiko batekin, desagertzen ari den Euskal Herria “ezberdina” errepresentatzen duena. Horretxegatik, De Pablok berak⁷⁴ *Eusko Ikusgayak* tradizio horren barnean kokatu du bere lan ezberdinetan, eta berak bezala, baita beste hainbat autorek ere; besteak beste, Elezcano Roqueñí-k⁷⁵ Geu ere, iritzi berekoak gara.

Esana dugun gisan, adar bi ezberdin daitezke Euskal Herriari buruzko dokumental etnografiko-erromantikoaren corpusean. Batetik, atzerritarrek egindakoak. Humboldtten gisan, herrialde zahar eta exotiko batekiko faszinazioz etorri ziren zinemagile ezagunak gurera; usu ekoiztetxe handien babesarekin. Desagertzeko arriskuan ziren “*Europako indioen*” erretratua egitea zuten helburu. *Au Pays des Basques* filmeko zuzendari Maurice Champreux-en semeak grafikoki esan zigun gisan, “*Mon père est venu au Pays Basque parce-qu’il a vu Nanook of the North*”⁷⁶.

Bestetik ordea, euskaldunek berek ere errepresentatu izan zuten Euskal Herria. Baina ospedun filmegile profesionalak barik, euskaltzale ekintzaile amateurak izan ziren gehienetan egile; zinema egiteko aukera ematen zien ezohiko posizio sozial edo ekonomiko bat edukirik, abentura pertsonal handietan sartu ziren idealistak. Zentzu horretan, Teodoro Hernandorena (*Euzkadi*, 1933), André Madré (*Gure Sor Lekua*, 1956), Gotzon Elortza (*Aberria*, 1962) edo eta Nestor Basterretxea eta Fernando Larruquertek (*Ama lur*, 1968) ere, atzerritarrek bezala, desagertzeko arriskuan zen herriaren irudia pantailaratu zuten; baina horrekin batera, harekiko engaiamendua agertuz. Nolabait esateko, haren biziraupenaren alde borrokatzeko beren modua zuten zinema.

Eusko Ikusgayak sailak azken hauekin dituen antzekotasunak nabariak dira. Lehen lehenik, motibazioari dagokionez. Oixtion aipatutako zinemagileak bezala, Ynchausti ere, bere herriaren alde zerbait egitearren hasi zen filmaketak egiten; idealismoak eta euskaltzaleatasunak bultzatuta, zinemazaletasunak baino gehiago.

Bigarrenik, produkzio baldintzei dagokienez. Hernandorenak kreditu bat eskatu zuen *Euzkadi* finantzatzeko, Madré bere opor garaietan etortzen zen Euskal Herrira filmatzera, Elortzak bere etxeko sukaldean muntatzen zituen, ahal bezala,

73. DE PABLO, Santiago «Banderas de libertad: cine y nacionalismo vasco en el exilio». In RODRIGUEZ PEREZ, María Pilar (arg.), *Exilio y cine* (or. 79- 200). Bilbao: Universidad de Deusto; 2006.

74. DE PABLO, Santiago. “El linaje de Aitor en la pantalla: cine, Historia e identidad nacional en el País Vasco”. In *Una ventana indiscreta: la historia en el cine*; 105-130 orr; 2008.

75. ELEZCANO ROQUEÑÍ, Andoni. «Sinfonía vasca (1936), un documental con historia : de película comercial a instrumento político» / Andoni Elezcano Roqueñí. *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca* (36), 61-93; 2013.


76. CHAMPREUX, Jacques. Elkarriketa pertsonala. 2013-02-05

bere filmak... Eta Ynchausti ere, bakar bakarrik jardun zen lanean; industriatik aparte, gastu guztiak bere gain hartuz eta modu erabat artisanalean.

Hirugarrenik berriz, Ynchaustiren profila aipatutako zinemagileenaren oso antzekoa da: posizio sozial eta ekonomiko ezohikoa daukan euskalduna da, eta Madré, Elortza, Basterretxea edo eta Ezeiza bezala, luzaroan kanpoan bizi izan da, sorlekuarekiko lotura afektibo handia atxikiz.

Filmen mamian sartuz, *Eusko Ikusgayak*-ek erakusten duen euskaltasun ereduak, antzekotasun handiak ditu haren ondotik filmatuko diren dokumentalekin. Kontuan hartu behar da, Ynchaustiren filmek, dokumentalgintzaren historiaurreko ale ditugun neurrian, ez direla istorio bat kontatzen duten obra buruaskia. Hala, ondoko hamarkadetako lanak ez bezala, ez dira mintzo Euskal Herriaz eta haren herritasunaz gai nagusi gisa, baizik eta “*asuntos vascos*” delakoez, banan banaka. Hala ere, ondorengo filmotan ikusiko ditugun gai asko eta Euskal Herriari buruzko diskurtsoaren muina, agertu egiten dira Ynchaustiren filmetan.

Batetik, euskal lurraldetasunaren mugak garbi zehazten ditu *Eusko Ikusgayak* sailak: Euskal Herria, Bidasoaren bi aldetara zabaltzen den herria da. Bizkaitik Xiberora, aukeratutako adierazpen kulturalen jatorri anitzean ikusten dugu hori, eta tituluetan erabilitako hiru hizkuntzetan. Bestetik, euskara aitortzen da Euskal Herriko hizkuntza bezala, frantsesa eta espainolari makulu lekua emanez.



Eusko Ikusgayak



Gure Sor Lekua



Ama Lur

Horrekin batera, tradizio erromantiko-etnografikoan behin eta berriz erabiliko diren irudi topikoetako asko aurkituko ditugu Ynchaustiren filmetan. Fandangoa, aurrekua, Xiberoko godalet dantza eta batez ere Durangaldeko dantzari dantza, esaterako, konstante bat izanen dira, bai atzerritarren eta bai euskal herritarren ondorengo filmetan. Era berean, kaian eserita josten dagoen saregilea, etxeko sutondoa zaintzen duten senar emazteak, plazan pilotan ari diren gazteak, edo belar mozte lanetan ari diren baserritarrak. Bestalde, diskurtso erromantiko-etnografikoan eta hartan oinarritutako filmetan pisu handia duten heriotza erritoak eta erlijiotasuna ere ez dira falta *Eusko Ikusgayak* sailean, elizen, alarguntsen eta prozesioen bidez.



Ereagatik Matxitxakora



Eusko Ikusgayak



Ikuska 13

Aldiz, harrigarriki absente dagoena, baserria dugu. Bai etxea bera, eta bai haren inguruko gaiak zeharka baino ez dira aipatzen. Hori alde nabarmena da, gai-nontzeko filmekiko, euskaltasunaren ikur nagusienetako baina etxea, iruditeria erromantiko-etnografikoarentzat. Arrazoirik ez dakigu, baina hipotesi gisa esan genezake, gai estatikoegia edo irudi bidez narratzeko zailegia irudituko ote zitzaion Ynchaustiri, eta mugimenduan hobeki luzituko zuten gai dinamikoak hautatzea hobetsi ote zuen; herri kirolak, dantzak...

Nolanahi den, garaian garaiko aldeak alde, XX. mende osoan dozenaka dokumental frantses, ingeles, aleman, amerikar zein euskaldunetan ezaugarri berezidun herri bat aurkeztu zaigu: Pirinioen alde bietan zabaltzen dena; nekazaria, artzaina eta arrantzalea; baketsua eta fededuna, eta desagertzearen egon arren, bere hizkuntza zahar eta kultura aberatsari azkarki lotua segitzen duena. “*Museo etnografiko bizidunaren*” iruditeria horri, bete betean erantzuten diote Ynchaustiren lanek. Hala, haietako gehienak baino goiztiarragoa izanik, euskal tradizio zinematografiko etnografiko-erromantikoaren amatxitzat har genezake *Eusko Ikusgayak* saila.

6. Ondorioak, hasteko

Bukatzeraz goaz. Artikulu honen lehen lerroetan genioenez, gure helburua izan da Manuel de Ynchaustiren figuraren eta *Eusko Ikusgayak* sailaren azterketa historiko bat burutzea, filmak haien kontestu sozio-kultural eta zinematografikoan kokatuz. Hori eginez, Ynchaustiren lana ahanzturatik atera, ezagutarazi eta aldarrikatu gura izan dugu; gure ondotik etor litezkeen ikerketentzako oinarri gisa balioko duen lana osatuz. Horretxegatik, zirkuluak ixteko ondorio definitiboak atera baino, ikerlerro berriak irekitzeko ondorio probisionalak eskaintzen ditugu artikulu honetan.

Hasteko eta behin, azaldu dugunez, Manuel Ynchaustiren profila, haren motibazioak eta lanerako zeuzkan baliabideak, ondoko hamarkadetan Euskal Herriari buruz filmak ondu zituzten hainbat euskaldunen oso antzekoak izan ziren: zinema egitea ahalbidetzen zion ezohiko posizio sozial eta ekonomikoko gizona zen, eta

zinemazaletasunak baino, euskaltzaletasunak bultzaturik jardun zuen; modu amateuran eta lan guztiak bere gain hartuz.

Zinematografikoki arras mugatua da *Eusko Ikusgayak* saila, munduan historiako lehen dokumentalak sortzen ari ziren garaian burutua, haiengandik baino hurbilago dago mende hasierako dokumentu filmikoetatik. Hala ere, Euskal Herria gaitzat hartuta XX. mende osoan zehar egin diren zenbait dokumentalekin antzekotasun nabariak zituela ikusi dugu, euskaltasuna errepresentatzeko manerari dago-kionez; eta beraz, tradizio zinematografiko erromantiko-etnografiko horren barnean koka dezakegula. Are gehiago, beronen aitzindarietako bat kontsidera liteke.

Bestalde, Ynchaustiren lanen inguruan, idazteke zegoen ibilbide historikoa osatu dugu. Batetik, datu berri ugari plazaratu ditugu, orain artean baliatu gabeko lehen mailako iturriei esker (Manuel Ynchaustiren gutunak eta seme-alaben lekukotzei esker, bereziki) eta bestetik, filmen orain arteko sailkapen ilogiko eta nahasiak gainditzeko asmoz, Euskadiko Filmategian kontserbatzen direnen katalogazio saiakera bat burutu dugu, besteak beste, protagonistak eta lokalizazioak identifikatuz. Horrekin denarekin batera, film ezezagun gehiago aurkitzeko bidea ireki dugu; seme-alaben esanetan, Intxausti-Baitako gainerrean oraindik material zinematografikoa gordetzen baita. Artikulu hau bukatzeko momentuan oraindik bertan dagoena arakatzeko baimenik izan ez badugu ere, Antonio Maria Ynchaustirekin hitzartu dugu, Filipinetatik Euskal Herrira eginen duen ondoko bidaian, hark 40ko hamarkadan filmatutako irudiak erakutsiko dizkigula, eta etxean gordetzen den aitarenean material zinematografikoa behatu ahalko dugula. Ez da baztertu behar, haien artean *Eusko Ikusgayak*-en ale berriak agertzea.

Bukatzeko, esan dezagun, gure ustez, *Eusko Ikusgayak* sailak eta hura bezalako lanek, berrirakurketa bat merezi dutela. Izan ere, gure zinemaren historiaren ispilu ez ezik, kultura osoaren ondorio direlakoan gaude. Ynchaustirenak bezalako filmak, ezin ziren bestelakoak izan. Edo hark bezalako idealista amateur batek eginen zituen, edo ez ziren existituko. Eta era berean, haiekiko ezezagutza eta ahanztura ere, historia horren fruitu da. 80ko hamarkadan euskal zinemaren nolakotasunari buruzko eztabaida teorikoen harira Antton Ezeizak egindako ondoko aldarrikapenak horren lekuko dira.

Parecería que los cineastas vascos de todas las épocas no nos resignásemos a empezar nuestro trabajo desde las bases de una cinematografía sin tradición. (...) propiciamos una y otra vez el alcanzar unos niveles de competitividad en el terreno donde están ya asentados los productos de unas Cinematografías menos precarias. Se importan técnicos y se sacrifica el euskara. (...) Sería como decir que las ikastolas hubieran optado por parangonarse con la otra enseñanza abandonando.... el euskara. No tengo una idea precisa de que haya habido intentos cinematográficos, siquiera aislados, en la otra dirección. Y es pena porque, de haberlos, ahí estarían los verdaderos precedentes de nuestra Cinematografía, subdesarrollada, naciente, como corresponde a todas las manifestaciones nuestras, que pese a estar situadas en un marco de Europa desarrollada tienen necesariamente la connotación tercermundista, tan denostada, de lo que pugna por nacer"⁷⁷.

77. EZEIZA, Antton. "Reflexiones para un debate sobre el cine vasco". In INTXAUSTI, J. (zuz). *Euskal Herria. Realidad y proyecto*. Donostia: Caja Laboral Popular, 1985.

Kanpoan homologatuak izateko euskalduntasunari uko egin zioten zinema-gileen aldean Ezeizak errebndikatzen zituen “*aurrekari subdesarrollatu*” horiek, existitu egiten ziren, berak jakin gabe. Eta jakina denez, Ezeiza ez zen, ez ezjakina, ez ezaxolatia.

Herri baten izatea, ekoizten duen kulturak definitzen badu, nolakoak izan garen, Ynchaustirena bezalako lanek erakusten digute beste ezerk baino hobeto: amateurak izan gara, traketsak, subdesarrollatuak, tradizionalak, agonikoak, eta gure nortasunari lotuak. Era berean, lanek berek bezainbat, haiekiko gure ahanztura eta ezezagutzak ere, ozen hitz egiten digute gure buruaz. Gure historia mutilatuaren oihartzuna dira.

Horregatik, *bazterkultura* izaera horretatik ateratzeko, burutu diren lan urrietaz ahanzi, mesprexatu edo haien petraltasunaz pleinitu orde, balioa aitortu behar zaielakoan gaude. Maila akademikoan, gure kultur historiaren irakurketa egiteko iturri bikainak baitira, eta sortzaileentzat ere, galtzera uztea pena litzatekeen herentzia kultural baten isla.

7. Iturriak

- “Acción de la Sociedad”. *Eusko Ikaskuntza'ren deia-Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos*. 1923, 20. zkia.
- . *Eusko Ikaskuntza'ren deia-Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos*. 1924, 23. zkia.
- . *Eusko Ikaskuntza'ren deia-Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos*. 1927, 34. zkia.
- AGUIRRE, Jose Antonio. *De Guernica a Nueva York pasando por Berlin*. Buenos Aires: Editorial Ekin, 1943; 348 orr.
- ANDERSON, Benedict. *Imagined Communities: reflections of the origin and spread of nationalism*, London: Verso, 1983; 160 orr.
- ARRARAS SOTO, Francisco. *Danzas e indumentaria de la merindad de Sanguesa*, Iruñea: Diputación Foral de Navarra, 1983
- ARMAÑANZAS, Emi. “Cine vasco de los años 20 en el Certamen internacional de Cine de Bilbao”. *DEIA*. 1982-11-24
- BELASTEGI, Nagore. «La memoria de un pueblo en 35 mm». *Gara*, 2013-05-23
- BIKANDI, Sabin. *Alejandro Aldekoa: Master of Pipe and Tabor Dance Music in the Basque Country*, Reno: Center for Basque Studies - University of Nevada, 2009
- CHAMPREUX, Jacques. *Elkarizketa pertsonala*. 2013-02-05
- Chez les Basques*. Prentsa dosierra. Festival Internacional de Cine Documental Punto de Vista. Iruñea: 2015.
- CLEMENTE, J.L: *Robert Flaherty*. Madrid: RIALP, 1963.
- DE PABLO, Santiago «Banderas de libertad: cine y nacionalismo vasco en el exilio». In RODRIGUEZ PEREZ, Maria Pilar (arg.), *Exilio y cine* (or. 79- 200). Bilbao: Universidad de Deusto; 2006.
- . “El linaje de Aitor en la pantalla: cine, Historia e identidad nacional en el País Vasco”. In *Una ventana indiscreta: la historia en el cine*; 105-130 orr; 2008.
- “Donostiko Erakusketa ederá. Argia'ren asmoak bete dira”. *ARGIA*. 1923-09-23
- ELEZCANO ROQUEÑI, Andoni. «Sinfonía vasca (1936), un documental con historia: de película comercial a instrumento político», *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca* (36), 61-93; 2013
- ETARBE, “Uda ikastaldiak”. *Eusko Ikaskuntza'ren deia-Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos*. 1928, 37. zkia.
- Eusko Ikaskuntza. Manuel de Ynchaustiri igorritako gutuna. 1923-09-21
- EZEIZA, Antton. “Reflexiones para un debate sobre el cine vasco”. In INTXAUSTI, J. (zuz). *Euskal Herria. Realidad y proyecto*. Donostia: Caja Laboral Popular, 1985.
- IZAGIRRE, Koldo. *Gure zinemaren historia petrala*, Donostia: Susa, 1996; 121 orr.
- JAUREGUI, Gurutz. *Haritzaren negua: “Ama Lur” y el País Vasco de los años 60*, Donostia: Euskadiko Filmategia, 1993; 359 orr.
- “La sesión cinematográfica de hoy”. *LA VOZ DE GUIPUZCOA*, 1928-07-19. 10. orr
- LARRONDE, Jean C., *Manuel de Ynchausti, etorri handiko mezenasa*, Donostia: Bidasoa, 1996; 121 orr.
- LETAMENDI, J. eta SEGUIN, Jean C., Los primeros rodajes de Euskalherria: imágenes ocultas tras la bruma del pasado. In *Ikusgaiak 4*, 2000; 15-27 orr.
- LOTI, Pierre. *Ramuntcho*, Paris: Collection grandes ecrivains, 1897.
- MANTEROLA, Pedro, “Introducción”, in GUASCH, Ana Maria, *Arte e ideología en el País Vasco*, Madrid: Akal, 1985.
- MARTINEZ, Josu. *Gure (zinemaren) sor lekua. Euskarazko lehen filmaren aurkikuntza, historia eta analisisa*, Leioa: UPV/EHU, 2015.
- “Naskaldia”. *Eusko Ikaskuntza'ren deia-Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos*. 1924, 24. zkia.
- ROLDAN LARRETA, Carlos. *El cine del País Vasco: de Amalur (1968) a Airbag (1997)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999.
- . “Euskal zinematografia: zinemaren hasiera Euskal Herrian” in *Auñamendi*

Entziklopedia; 2010. Sarean:
<http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee150011/137091>; Azken kontsulta: 2015-12-31

SATRUSTEGI, Jose Maria. "Txekoslobakiako itzuliaren berri eta ondoreak". *Euskera*, 1982, XXVIII zkia (2. aldia), 269-275. orr

SORLIN, Pierre. *Cines europeos, sociedades europeas*, Madrid: Paídos, 1996; 220 orr.

STONE, Rob. *Spanish Cinema*, New York: Routledge, 2002.

UNSAIN, Jose Maria. *El cine y los vascos*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1985; 355 orr.

VILLAFRANCA, Rosa eta ALDAIA, Angel M, *Danzas De Ochagavia. 300 Años De Historia*, Iruñea: Editorial Mintzoa, 1996

YNCHAUSTI, Antonio. Elkarriketa pertsonala. 2015-08-24

—. Elkarriketa pertsonala. 2015-08-28

YNCHAUSTI, Manuel. Angel Apraizi idatzitako gutuna. 1923-09-17

—. Angel Apraizi idatzitako gutuna. 1923-12-11

—. Angel Apraizi idatzitako gutuna. 1924-07-03

—. Angel Apraizi idatzitako gutuna. 1924-09-01

—. Eusko Ikaskuntzako zuzendaritzari idatzitako gutuna. 1928-06-01

—. Fausto Arozenari idatzitako gutuna. 1923-12-06

—. Fausto Arozenari idatzitako gutuna. 1925-03-20

—. Frantisek Pospisili idatzitako gutuna. 1927-08-24

—. Julian Elorzari idatzitako gutuna. 1924-01-15

YNCHAUSTI, Miren. Elkarriketa pertsonala. 2015-08-05

ZZ.AA., *I Congreso de Estudios Vascos: Oñate 1918*. Bajo el patrocinio de las Diputaciones Vascas, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1919; 999 orr.

ZULAIKA, Joseba. *Del cromañon al carnaval*, Donostia: Erein, 1996; 253 orr.

ZUNZUNEGUI, Santos. *Euzkadi: un film de Teodoro Erandoreña (1933-1983)*. Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína, 1983.

—. *El cine en el País Vasco*. Bilbao: Bizkaiko Foru aldundia, 1985; 605 orr.